

ttipi-ttapa



ARTXIBOKO ARGAZKIA

XXVI. Gasna eta Artisan Feria ekainaren 3an Etxalarren / 15

Doneztebeko Erreka Elkartearen Eguna ekainaren 1ean eta 2an izanen da / 19

Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa ekainaren 2an Leitzaan / 29

Xareta Eguna ospatuko dute ekainaren 3an Saran / 40

SINADURAK



ZOZKETA / 31



UTZITAKO ARGAZKIA

Atzerrian sorterria gogoan

Atzerrian bizi diren eskualdeko hiru herritarren bizipenak bildu ditu TTIPI-TTAPAK / 10

DOBLE-A®

www.cortinasytoldosdoblea.es

Aholkatu, neurriak hartu
eta aurrekontua eginen dizugu
konpromisorik gabe


PERGOLA BIOKLIMATIKOAK



MOTA GUZTIETAKO TOLDOAK



Estoreak, kortinak, panel japoniarrak, kristalezko itxiturak, moskiterak, sabai finkoak edo mugikorrak...



T. 943 66 70 03

Amute 8, behea **HONDARRIBIA**

Banatzaile ofiziala

GRADULUX
GRADULUX

Luxaflex

**berako
agenda**
e.us



★ Ekaina ★

**berako
agenda**

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonoan
edo www.berakoagenda.eus



01 | EKITALDIA
ORTZIRALEA | BAZTAN-
BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETAKO
SARI BANAKETA

18:00 Kultur Etxean
Antolatzaileak: Bortzirietako Bertsu Eskola eta
Berako Kultur Batzordea
Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea



07 | KIROLA
ORTZEGUNA | IGERILEKUEN
IREKIERA

(ekainaren 7tik irailaren 9ra arte: 11:00-20:00)
Abonamenduak ekainaren 4tik 6ra egiten
ahal dira kiroldegian. Ekainaren 7tik aitzinera
igerilekuan bertan.

Ikastaroetako izen-ematea:

- Igerilekuan: igeriketa
- Kiroldegian: ziklo indoor, pilates,
entrenamendua suspentsioan,
ziklo gaztea.

Beti bezala, kiroldegiko muskulazio gelara
abonatzeko ahal zara.

Eskatu zure entrenamendua!



02 | DANTZA
LARUNBATA | BERAKO
XXIV. DANTZARI
TTIKI EGUNA

Antolatzaileak: Gure Txokoa Elkartea



09 | BERAKO
LARUNBATA | ABESBATZAREN
KALEJIRA
herrian barna

17:30 Agerratik hasita

09 | MERKATUA
LARUNBATA | BAZTAN-
BIDASOKO
EKOIZLEEN
MERKATUA

10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolan

15-17 | ALTZATEKO
ORTZIRALEA ETX. | IGANDERA
BESTAK



18 | MUSIKA
ASTELEHENA | UDAKO
KONTZERTUA

18:00 Kultur Etxean
Antolatzaileak: Isidoro Pagoaga Udal Musika Eskola

29 | EKITALDIA
ORTZIRALEA | EUSKARALDIAREN
AURKEZPENA

19:00
Illekuetako parkean





NIRE TXANDA

JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Gezurak, egia, espantuak

Jakina da arrantza, ehiza eta onddo kontutan maiz espantu eta gezur franko izaten dela, haunditu ez dena gordetzeko, edo ttikituz badena ez erakusteko. Nola jakin zer den egia? Espanturako aukera ematen duen bertze zera aipatu dezaket, nire burua saltzearen beldur izanik ere; aspaldian, Ochoa doktore andereak egindako gonbitari erantzunez, solas gaitezen (zeharka bada ere).

Bai, «asuntuan aritzeaz» ari naiz, inkestaren baten arabera, ezkonduen %34ak astean 3-4 aldiz egiten omen. Bai ote? Akaso bai: *Grey jaunaren 50 Itzalak*

liburua Harry Potter baino gehiago saldu da. Telebistan 50 urteko emakumeei yoga egiteko gogoia haunditzen dien botika iragartzen dute, eta hainbat abantaila...

Ez da hori, ordea, gizaseme ezkondu finen artean, pixka bat zintzotzean entzuten dena: eskasko egiten denaren kontua aditzen da zeharka-meharka, irri murritzez, etsipenez.

Isilpean sufrizten den gauza horietakoa ote den nago ni. Hala ere, nola jakin egia, bakoitzarena bertzerik?

**«NOLA JAKIN ZER
DEN EGIA,
BAKOITZARENA
BERTZERIK?»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

Hamaika ikusteko jaioak gara

Beltran anderea aztoratuta oihuka ari da Goizuetako plaza hutsean: 'Nafarroako Gobernuak euskara inposatu nahi digu!'. Isiltasunak oihartzun egin dio. 'Euskaldunek inbadituko gaituzte!', handiagoa bota du. Exteban xaharra tiriki-tarraka ondotik pasa zaio, Hernanirako autobusa hartzera: 'Hemos nazido para ver ontze' dio ahapeka.

NABARMENTZEKOAK



AUXTIN
ZAMORA DURRUTY
OLERKARIA



ALAITZ ETA IRAIA
ETXABIDE
SARITUAK

Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu du Auxtin Zamora Senpereko olerkaria. Bortz olerki liburu idatzi ditu, *Hatsaren Poesia* olerki bilduma argitaratzen du, olerkari gaztetxoan animatzailea da...

CAF-Elhuyar sari handia irabazi dute Alaitz eta Iraia Etxabide lesakar ahizpek. Plastikoen arazoari aurre egiteko irtenbideak ikertzen ditu Alaitzek, eta idatzi duen artikulurako ilustrazioak egin ditu Iraiak (argazkian).

ATZERA BEGIRA



2008-06-12 · TTPI-TTAPA · 472 zk.

Txapela Leitzara baietz!

Historian lehen aldiz, Nafarroako herri bereko bi pilotarik eskuz banakako final nagusia jokatu zuten 2008an: Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak. Finalaren atarian, TTPI-TTAPAK biak elkarriketatu zituen. Barriola honela mintzatu zen Bengoetxeaz: «pilotari bat behetik gora horrelako ilusioarekin heltzen denean, oso arriskutsua da. Beti horrela izan da eta orain duen moralarekin gehiago». Bengoetxeak, berriz, zera adierazi zuen: «Abelek esperientzia gehiago dauka maila honetako partidetan, pilotari ikaragarria da eta bera izanen da faborito». Julian Iparragirre Euskadi Irratiko esataria ere tartean zen, eta aitortu zuenez, «Abel eta Oinatz arteko final bat irratiz ematea zen nire ametsa eta hori beteko dut».

 **ttipi-ttapa**

erran.
Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Laralde, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebexa

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**





KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Izeberga II: txistek eta piropoak

Sexismoaren izebergaren azpiko aldean segituko dut solasean, hau da, hain agerian ez den sexismoari buruz. Hausnarketarako baliogarria eta beharrezkoa zaidalakoz eta irakurlearendako ere hala izatea espero dudalakoz. Hain agerian ez den sexismoaren aldean txiste sexistak daude, berteze gauza aunitzekin batean. Txiste bat bertzerik ez da erranda trankil uzten gaituzten horiek. Baina umorea ez da inozentea eta txiste hauekin irri egitea ere ez. Txistek, izebergaren altxapean den bertze edozein jarrera sexistek bezala, eragina du guregan. Txiste sexistek emaztekien kontrako biolentziaren onarpenean laguntzen dute eta zapalketa egoera bat normalizatzen dute, edo horretan lagundu guttienez.

Definizioz, txistek esaldi edo istorio irrigarriak dira. Gakoa dago irri eginarazten digun horretan. Txistekin ideologia edo pentsamendu bat garatzen da, zeri buruz edo nori buruz irri egiten ahal dugun baimena ematen digun ideologia. Eta

horren arabera, ideologia eta pentsamendu zapaltzailea garatuko dugu, irriaren helburuaren arabera: kanpotarrak, homosexualak, ezintasunen bat dutenak... eta dudarik gabe emaztekiak.

Kultura bat garatzen dugu

hola, eta normalizatzen dugu kasu honetan emaztekiei buruz nahi duguna errateko ahalmena: gorputzaz irri egin, etxeko lanei buruz, zaintzari buruz, eta urrunxeago joanez, erasoei buruz, bortxaketei buruz, hilketei buruz. Irriaren bidez zapaltzaile bihurtzen dugu gure burua.

Gorputzaren kasuari piropoa gehitzen ahal diogu, iritzia eskatu gabe gure gorputzari buruz, gure ibilerari buruz, gure arropari buruz zerbait erraten digutenean. Esaldi, ustezko sinpatikoak eta ustez eskertu beharko genituzkeenak, erakusten ari direna da gizonen gustukoak izan behar dugula, eta beren onespina behar dugula. Hau da, piropoa zerbait ona dela sinestarazten digute, piropoa hartzen dugun bakoitzean, onartuak garela (beztimentan, gorputzean, ibileran...) erakutsi nahi digute. Hemen ere normalizatzen eta onartzen dugu gizonezko batek gure gorputzari buruzko iritzia noiznahi eta nolanahi ematea.

Ez da irrigarria emazteki batek etxeko lan guztiak egitea, ez da irrigarria haurren zaintzaz bera bakarrik arduratzea, ez da irrigarria kolpatua izatea, bortxatua izatea, eraila izatea, umiliatua eta guttietsia.

Eta bai, maite dut irri egitea eta maite ditut txistek, badut umorea. Baina ez zapalduen kontura.

Brigitte Vasallo idazleak dioen bezala, umorea beti barnerat eta goiti egin behar da, bertzenaz opresioa da: irri egin dezagun gure buruaz, irri egin dezagun zapaltzen gaituzten horietaz.

**«MAITE DUT IRII
EGITEA BAINA EZ
ZAPALDUEN
KONTURA»**



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Dragoi Bolaren belaunaldia

1990eko hamarkada hasieran Euskal Herriko milaka eta milaka haur ilunabarrero jartzen ziren telebista aitzinean Son Gokuren abenturak ETB1en ikusteko. Garai hartan munduan zeuden marrazki bizidun arrakastatsuenak euskaraz jaso zituen belaunaldi guzi batek, eta, horregatik, gutti izanen dira gaur egun dragoi bolak aipatu eta zer diren ez dakitenak. Belaunaldi guztiek izan ohi dituzte erreferente eta sinbolo partekatuak, eta, dragoi bolak, garai baten sinbolo bihurtu ziren. Hogei urte baino gehiago pasatu dira ordutik, eta telebistaren aitzinean paratzen ziren haur haiek bizitza esperientzia koxkor xamarra bildu dute. Denetarik eta behar baino gehiago izan duela adituz hazi den belaunaldi bat izan da. Analogikokoentzat mundu digitalekoa den belaunaldia, eta mundu digitalekoentzat analogikokoa dena. Internetera garaiz ailegatu zen belaunaldia, baina lagunak non zeuden jakin ahal izateko herrian barna bizikletaz buelta eta buelta ibiltzea zer den ezagutu duena. MTV rock gogorraz jabetu

zen garaia egokitu zitzaiolako, bere burua euskal rock erradikalaren prestigioa txikle bat bezala luzatzera behartuta ikusi duen generazioa. Ikastolako mapetan egun batetik bertze URSS erraldoi hura nola desagertu zen ikusi zuen

**«BIDEA EZ DA
ALFERRIK IZAN ETA
URRATZEKO AUNITZ
DAGO ORAINDIK»**

belaunaldia, nahiz eta oraindik ez zuen ulertzen zer aldatu zen, ezta zer etorriko zen ere. Bologna aitzineko unibertsitate tituluarekin edo gabe, merkatu neoliberallean erdipurdiko bizitza bat eramateagatik eskerrak eman behar dituela irakatsi zaion belaunaldia. Poliziaren borrak, pilotakadak, kontrolak, komisariak, plastiko poltsak eta kartzelak ezagutu arren, bere borrokak eta ekintzak oker handi bat izan direla adituz heldu egin den belaunaldia. Aitzineko belaunaldien epikarik ez duela erran zaion generazioa, eta, hortaz, ondorengoek ereduak deus ikusten ez diotena. Bai borrokara, bai bakera berandu ailegatu den belaunaldia. Baina telebista piztu, eta, kasualitatez, haurtzaroko atal zahar haiekin topo egiten duenean, zaharragoek eta gazteagoek ez dituzten oroitzapenak etortzen zaizkio gogora. Akaso, ez du lortu zazpi dragoi bolak biltzea, baina egindako bidea ez da alferrik izan, eta urratzeko aunitz dago oraindik.

11 GALDERA LABUR

ARANTXA ESTANGA LABAIENGO GAZTEA

«Asko haserretzen nau egindako lana ez estimatzeak»

Nor da Arantxa Estanga?

Labaiengo neska gazte, arrunt eta alaia.

Zer zaletasun dituzu?

Denbora libre liburu on bat irakurritz, trikitixa astinduz edo lagunekin kontu kontari pasatzea gustatzen zait.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Iaz akitu nituen optika eta optometriako ikasketak eta orain Iruñeko optika batean ari naiz lanean. Zorionez, optika eta klinika asko eta optometrista gutxi daude inguruan ditugun hiriguneetan... Nagusiak ez omen ditu langileak berehalakoan aurkitu. Sektorrean lana bada momentuan eta etorkizunean ere izanen dela uste dut.

Herriko dantza taldean parte hartzen al duzu?

Ez, pena handia badut ere ez dut parte hartzen. Hasi nahi nuen, baina iaz ikasketengatik eta aurten lanarengatik ezin izan dut entseguetara joan...

Beintza-Labaiengoa edo Male-rrekakoa sentitzen zara?

Bietakoa. Baina, bat aukeratzekotan Beintza-Labaiendarra naiz, dudarik gabe! Nire herria maiteago dut.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Ni ongi egotea eta ingurukoak pozik egotea nahikoa dut zoriontsu izateko.

Gorrito duzun zerbait ba al duzu?

Gorrito, gorrito... ez dakit. Egindako lana ez estimatzeak asko haserretzen nau...



Nora bidaiatuko zenukeen gus-tura?

Australiara. Ttikitatik izan dut bertarajoateko eta han oporrak luze eta lasai pasatzeko gogoia. Urrutira joan gabe inguruan ere izanen dituzu txoko politak...

Leku saila badira politak... Baina bat aipatzekotan, Gor-rako kaskoa esanen nuke, herritik hurbil dago eta bertatik ingurua hagitz ederra ikusten da.

Asteburuko plan ederrena?

Astea Iruñean pasatzen du-danez, asteburuan herrira joan eta lagunekin elkartzea gus-tatzen zait. Herrian bada, edozein plan izaten da ona.

Amets bat?

Munduko txoko asko ezagu-tzea. Turistikoak diren herri eta hiri ezagunez harago, ho-rren ezagunak ez diren gune ederretako toki miresgarriak ezagutu nahi nituzke.

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETUEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia • Mikel
Tel. 948 450 014 • BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA


744 484 361
ttipi-ttapa

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 **logurak**
www.logurak.com

gaueko konfort-kuxina



 Centro Prim  regina tolosaechepare

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com







IRAKURLEAK MINTZO

Distopia garaikidea

XABI TORRES LETONA

Ez dut telebistarik etxean eta Facebook telefono mugikorretik kendu nuen. Distopiak gustatzen zaizkit, baina eleberrietan. Edo fikziozko irudietan.

Uste dut ez naizela horregatik burbuila batean bizi. Izan dut ETaren azken hitzen berri, Nafarroako epaitegiari darion justizia kiratsa iristen zait, jabetzen naiz Informazio Ministerioaren mass media estatal guztiek, miserkordiarik gabe, erreinuko jendartearen txertatu duten mundu -eta etxe- ikuskera kezagarriaz ere bai; statu quo-aren igerileku akotatuan nola gabiltzan gustura epelean, egostera doazen igelak bezala... erranairu zaharra da. Zenbat kontu ote dagoen hari hontatik tiraka josteko, baina hori ez da gaurko jantzi gorria izanen. Ustez.

Banuen ere palestinarrek Nakbaren 70. urteurrenean, maiatzaren 15ean, egin asmo zuten martxaren berri. Israeldarrek ere izanen zuten honen berri, doike. Lagun baten ahotik jaso dut azken notizia, goizeko lehena: «konejuak bezala garbitu dituzte».

Eta Maccabi Tel Aviv Euroligan, Eurovisionen gerra kriminal bat irabazle (zer kasualitatea) eta Giroa Israelen hasi da. Gero eta gutxiago kostatzen zait eraikitzen ari diguten Europa honetan Israel eta Turkia irudikatzea, beren langileria sarraskitua zango-zolan ezkutaturik dutela. Etorkizun hori epeka erosten ari gara guretzat ere.

Atarian ez, distopia betean gaude.

Ikasiko ote dugu ezin garela epelean geldirik egon? Zuhurtasuna,

zorroztasuna... eta irudimena, oraindik bertute direla?

Banoa kuartora *Handmaid's Tale* ikustera, fikzio pixka bat behar dut eta...

Erne eta adi

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Gaur 'bolondres' hitzari buruzko aipamen batzuk egin nahi ditut. Baina jarraitu baino lehen, ikus dezagun Euskaltzaindiak zer idatzi duen bere azken hiztegiari: bolondres iz. (Oharra: Euskaltzaindiak, *bolondres*ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. boluntario).

Tira, bada, nik uste dut oso hitz gutxitan esanda, arrunt argi eta garbi gelditu dela afera. Orain, irakurle, zerorrek erreparatu ea non eta noiz ikusten edo entzuten duzun bolondres hitza, ez oso modu egokian erabilia. Neronek apirilaren 24an entzun nuen azkeneko aldiz, irrati baten.

Eta, bukatzeko, ez dezagun ahantz hemengo helburua, denok zerbait ikasi eta hobetzea dela.

BOTA BERTSOA



MATTIN AIESTARAN

DE LA SOTILLA

IRURITAKO BERTSOLARIA

Hasi berrien terapia

Doinua: Munduko ilunabarra

*Txutxumtxuen hizketa
Notizi bat da gordeta
Jar ezazue arreta
Astean behin hartuz beta
Bertso eskolan aritzen gara
Doinu-errima kolpeka
Hamaika trukoz betez bodega
Eta zimurtuz kopeta
Hau irriaren terapia da
Hemen nire hausnarketa
Aditu Baztan gauza onak ere
Gertatzen dira tarteka
Hasi berrien bertso eskola
Hasi berria da eta.*

*Hamaborts bat ariketa
Inoiz ez gaude aseta
Ta ez denez lehiaketa
Norberak bere oreka
Pauso luzeko hankamotzekin
Hankaluze batuketa
Elkar lagunduz aritzen gara
Txibatuaz ahopeka
Sudur gorriko hainbat pailazo
Ta hainbat sasi-poeta
Hitzaren hari finaz jolastuz
Osatzen dugu josketa
Lotsaz biluztu ta harrotasunez
Janzte da errezeta.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



JAKINARAZTEN DA: 2018ko lehen seihileroko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe

2018ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Errolatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	
Zaborrontzitik 200-500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzia 500 metrotik edo gehiagora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzariak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ile-apaindegia, lan bulegoak, eraikin publikoak	78,70 €	
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,60 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €	
1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren berriz batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	157,10 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa. 2018ko otsailaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 42 zk
2. Ostatua. 30 m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari-denda daukaten ostatuak	314,50 €	
3. Ostatua. Pub eta diskotekak	392,80 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	
Zaborrontzitik 200-500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzia 500 metrotik edo gehiagora dauden landetxeak	55,10 €	
2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	157,60 €	
Zaborrontzitik 200-500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
Zaborrontzia 500 metrotik edo gehiagora dauden landetxeak	110,30 €	
1. Hostala. 10 logela edo guttiagokoak.	549,80 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagokoak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak. Opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa. 2018ko otsailaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 42 zk
Merkataritzako saltokiak. Janari-dendak edo ostatudunak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak. Jatetxedunak	1.178,50 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
Lantegiak, 61-150 langile bitarte	1.178,50 €	
Lantegiak, 151-300 langile bitarte	2.233,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordaintzeko banketxeetan helbideratuta ez dituztenei:

Abisuan agertzen den edozein kontutan egin dezakete ordaintzea nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordaintzeko banketxeetan helbideratuta dituztenei:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2018ko ekainaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2018ko uztailaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa gehitu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekararekin kobratuko da.



Ito film laburra grabatzen, Getarian (Lapurdi). UTZITAKO ARGAZKIA

«Zinemagintzan jende hagitz gutti bizi daiteke euskaraz sortzetik»

OIER FUENTES BERA KO BIDEOGILEA

Duela hamarkada bat baino gehiago murgildu zen bideogintzan Oier Fuentes eta azken aldian, film laburren ekoizpenean ari da buru-belarri. Horiei esker hainbat sari ere irabazi ditu

G. PIKABEA BERA

Hitzekin, argazkiekin edo musikarekin istorioak kontatzeak erakarrita hasi zen Oier Fuentes 2007an bideogintzan, «bideoak bere baitan aukera guztiak jasotzen zituela ikusita». Garbi zuen ordurako zein bide hartuko zuen eta Irudi eta Soinuan espezializatutako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasketak egin zituen. Zinema eta ikus-entzunezkoan formazioa ere jaso zuen. Lagunartean, zuri-beltezko film labur mutuak egiten hasi zen eta geroztik, ibilbide oparoa osatzen ari da: bideoak, erreportajeak, spotak, bideo-klipak, dokumentalak, film laburrak... Denetarik egiten

ari da. Gainera, egin dituen film labur batzuekin, hainbat sari eskuratu ditu: Lekeitioko 40. Euskal Zine Bileran, zuzendaritza onenaren saria jaso zuen *Aska Tasun Hari* filmarekin, zinemagile amateurren sailean. *Kreba* filmarekin, Eibarko Asier Errasti film laburren jaialdian euskarazko pelikularik onenaren saria hartu zuen eta film hori euskarazko film labur onena izendatua izan zuten Erreterterriako XXII. Film Laburren Jaialdian. *Azken saskia* bere dokumentalak 40 proiektiotik goiti izan ditu eta Afrikan eta Espainian ere ikusi ahal izan dute.

Hainbat sari jaso dituzu. Zer erran nahi dute sari horiek zuretzat?

Sariak jasotzea pozgarria da. Aitzinera segitzeko motibazio-iturri dira, zerbait ongi egin den seinale. Orain egiten ari garen film labur bat sariei esker egin ahal izanen dugu, baina halere, denok musu-truk egiten dugu lan. Diru gutti horrekin gastuak ordainduko ditugu: janariak, jantziak, alokairuak... Niretzat, benetako saria lan gehiago egin ahal izatea da, ahal dela jende berria ezagutzea, aukera berriak sortu eta inoiz zapalduko ez nituzkeen tokiak zapaltzea. **Atzerrira ere ailegatu dira zure filmak. Espero zenuen halakorik?** Ez, inondik inora ere ez, ez ziren horretarako egin, eta beraz, sorpresa izan da niretzat.

Festibalen zirkuitua ez dut duela guttira arte hurbiletik ezagutu eta harritu nau munduan zehar dagoen festival kopuruak. Film bat egitea kontu bat da, baina ondotik, filma ikusia izan dadin egin beharreko lana ere ez da ttikia. Zorionez, aukera handiak daude gaur egun filmak kanpoan ere ikusi daitezkeen. Eta noski, *online* mundua ere hor dago.

Nolakoak dira zure film laburrak?

Denetarik dago. Gidoiaren arabera, estiloa egokitzen saiatzen naiz. Nik idatzitako gehienak nahiko pertsonalak direla erranen nuke. Irudietan, soinueta eta haien erranahietan sakontzea gustatzen zait, baina bizitzako unearen arabera, gauza bat edo bertz bat gehiago lantzen dut. Lan arruntagoak ere badituzte, ausartagoak, mutuak, elkarrizketa dutenak, musikalagoak...

Bideragarriak dira film laburrak?

Film labur kontzeptuaren barruan gauza aunitz sartzen dira. Hiru maila daude: diru aunitz kostatzen diren lanak, aurrekontu urrikoak eta aurrekonturik gabeak. Oro har, diru-laguntza publikoen bidez egiten dira, baina izan daitezke 20 mila eurokoak, 40 mila-koak eta aunitzez gehiago edo guttiagokoak. Kontuan hartu behar da grabaketa prozesuaren zati laburrena dela. Ordu-rako ordu aunitz pasatu dira dena prestatzen, eta ondotik ere ordu pila sartzen dira muntatzen eta ondoko lanetan. Ni zinemagintzan aurrekonturik gabeko lanetan nabil eta sariaren diruarekin edo musu-truk egin ditut lanak, proiektuei nire orduak eskainiz. Ez dut lan bezala hartzen, ikasketa pertsonal bat da, gustu berdintsuak dituen jendearekin egoteko eta egiteko aukera bat.

Nola ikusten dituzu euskarazko bideogintza eta zinemagintza?

Eskaintzen ditudan sormen laborategietan ikusi ahal izan dudanez, bideogintza bolada onean dago. Orain, denok gara bideogile, telefono mugikorrekin. Baina nahiz eta tres-

nak eskura izan, bideo bat egitea ez da grabatzea soilik, hori baino aunitzez ere konplexuagoa eta interesgarriagoa da. Zinemagintza profesionala momentu onean da orain, baina mundu gogorra eta zaila da, jende hagitz gutti bizi daiteke euskaraz sortzetik. Helduetan sortzaile izaten jarraitzen duen jendea ez da hainbertze, are guttiago euskaraz. Baina ez badugu euskaraz kontsumitzen, zaila da euskaraz sortzea. Diru-laguntza edo deialdien munduan ere, euskaldunok lan bikoitza egin behar dugu, informazioa erdaraz entregatu behar baita. **Film luze gutti egiten dira euskaraz. Eta film laburrak?**

Aunitz edo gutti zer den ez dakit, baina garen komunitatea eta garen hiztun kopurua ikusita eta horretatik filmak ikusi eta euskaraz ikusten duen taldeari erreparatuta, film dezentegiten da euskaraz. Zorritzarrez, euskaraz sortzeak lan handiagoa eskatzen du oraindik eta zirkuitu laburragoa du. Parte hartu dudana festibaletan ikusi dudana egiten duten sortzaileak. Herri eta eskualdeetan lehiaketak, diru-laguntzak eta bertzelako bideak sortu behar dira euskarazko produkzioa bultzatzeko. Zirkuitua handitu eta euskarazko lanei ikusgarritasuna eman ahala, gehiago sortuko da. Laburbira bezalako ekimenak aspalditik egiten dira baina gure eskualdean ez dira antolatzen. Pena da euskarazko urteko uzta gurean ez ikustea. **Nolako harrera dute film laburrek?** Film labur gutti ikusten da. Aukerarik ez egoteaz gain, ez dago ohiturarik. Ez dira baloratzen, edo hor ere, hainber-

tze lan egonda, zaila da kalitate oneko lanak eta bertzelakoak bereiztea. Film laburretan pentsatzen dugunean ez dugu pelikuletan pentsatzen, bigarren mailako lanetan baizik, eskolako lanetan. Eta hori ez da horrela. Liburu eta diskoetan bezala, laburragoak izanagatik ez dute zertan kalitate ttikiagoa izan. Gainera, ustez, denborarik ez dugun garai hauetarako formatu egokia izan daiteke.

Zer egin beharko litzateke sektorea indartzeko?

Sektorea zinemagintza profesionala bada, hainbat elkartetarikaldarrikapen konkretuak egiten dituzte legedia eta arauak egokitzeko. Euskalgintzatik ere gauza bera, eta ez dira gutti horretan ari direnak. Ikus-entzunezkoak garestiak direla erraten da eta hori erraten den momentutik deus guttirako balio dezaketela erraten ari gara, baliorik ez dutela. Sormena balorean jartzen ez den bitartean interesik gabekoa izaten jarraituko du. Herrietatik hasi behar da, ekimenak sortzetik. Film kolektiboak, proiektzioak, ikastaroak... gauza aunitz egin daitezke.

Zein izanen da zure hurrengo lana?

Hiru film laburrekin ari naiz. Bata Donostian hustutako etxe batek giblean utzi dituen ahotsena, bertzea euskal kondaira zahar baten egokitzapena da eta azkenik film labur poetiko bat, muga pertsonalen inguruan.

Film luzerik eginen duzu inoiz?

Auskalo, agian bai eta agian ez. Lehenagotik film labur bat baldintza onetan egitea gustatuko litzaidake. Ondotik ikusiko da, ez dut behar berezirik film luze bat egiteko.

«EZ BADUGU EUSKARAZ KONTSUMITZEN ZAILA DA SORTZEA»

«SORMENA EZ BADA BALORATZEN INTERESIK GABEA IZATEN SEGIKO DU»



Kreba film laburra grabatzen, erdian Oier Fuentes. UTZITAKO ARGAZKIA



Kreba film laburra grabatzen, eskuinean Oier Fuentes. UTZITAKO ARGAZKIA



Kreba film laburra grabatzen, eskuinean Oier Fuentes. UTZITAKO ARGAZKIA



Ito film laburra grabatzen, Getarian (Lapurdi). UTZITAKO ARGAZKIA

Urruntzeko beldurrik gabe

Arrazoi bat edo bertze tarteko, etxetik milaka kilometrotara bizi edo bizi izan diren eskualdeko hiru emakumezkoren bizipenak bildu ditu TTIPI-TTAPAK

G. PIKABEA

Lanagatik batzuk, ikasketak tarteko bertzeak, esperientzia berrien bila bertze batzuk... Arrazoia bat edo bertze izan, ez dira gutti maleta hartu eta etxetik urruti, milaka kilometrotara joaten diren eskualdeko herritarrak. Denboraldi baterako egonaldiak izaten dira batzuk eta kabia hantxe eginez bukatzen duten bidaiak bertze batzuk. Badira munduaren bertze puntan, Australian, bizi direnak; badira putzuaren bertze aldean, Ameriketara bizi direnak, eta badira hurbilago egonagatik, sorterritik milaka kilometrotara daudenak. Horietako hirurengana jo du TTIPI-TTAPAK, Uxue Azpiroz Lasarte leitzarrengana, Jone Bonnemaïson Vidart urdazubiarrarengana eta Begoña Leonet Claver aranoarrarengana, hain zuzen.

Leitzatik Greziara

Lan aukera berriak bilatzeko asmoz jo zuen Azpirozek Greziara eta 1997az geroztik hantxe bizi da. Ordurako ezaguna zuen herrialdea, Erasmus

bekarekin ere han ibili zelako. Hogeitaz baina gehiago daramatza greziarren artean, eta hantxe osatu du kabia; han ditu lana eta familia. Hala ere, ez da sorterriaz ahaztu eta urtean bizpahiru aldiz bisitan etortzen da.

Urdazubitik Suitzara

Bonnemaïsonek ia bortz urte daramatza Suitzan bizitzen. Iruñean lanean ari zen lantegia itxi zutenean, Suitzan lana eskaini zioten eta halaxe hartu zuen Montreuxerako bidea. Prozesu kimikoen segurtasun ingeniari gisa egiten du lan, nahiz eta berriki ama izan denez, oraindik amatasun-bajan segitzen duen.

Aranoetik Australiara

Australiara joanez, «betiko amets bat egia bihurtu» zuen Leonetek. Hamalau hilabete pasatu zituen han; zentro teknologiko batean ikasi eta lan egin bidenabar, bazter andana ere ezagutu zituen. Euskal Herrira itzulia bada ere, ez du baztertua berriz joateko aukera.



Munduan barna ederki barreiatuak dira eskualdeko herritarrak.



Uxue Azpirozek 49 urte ditu eta 20 urte baino gehiago Grezian.

«Oso komenigarria da herri-zulotik ateratzea»

UXUE AZPIROZ LASARTE LEITZARRA GREZIAN

Azpirozek 1993an zapaldu zuen lehenbiziko aldiz Grezia, Erasmus bekarekin, itsas biologiako ikerketa zentro batean lan egitera joan zenean. Horren ondoren, Euskal Herrira itzuli zen, baina berriz hartu zuen Greziarako hegazkina eta han gelditzea erabaki zuen. «1997az geroztik Kretan bizi naiz», adierazi digu.

Hasiera batean, «erraz» egokitu omen zen hango bizimodura, «beti itzultzeko ideiarekin bizi nintzelako». Erabat gelditzeko erabakia hartzea, ordea, zailagoa egin omen zitzaion: «erabakit gelditzeko erabakia asko kostata hartu nuen eta beti noizbait itzultzeko ideia buruan dudala».

Bizitzen jartzearekin batera, greziera ikasi zuen, «nahiz eta bertakoak ingelesez ongi moldatzen diren». Horrekin batera, «ohiturak, harremanak, janaria eta bestelako ikuspegiak errespetatzen ikasten da», dio. Azaldu digunez, hango bizimodua «osotara desberdina» da hemengoarekin alderatuz: «argitasunak eta eguraldi eguzkitsuak jendearen jarrera eta bizimodua aldatzen ditu, Euskal Herrian lanbroak eta lainoak bezala».

20 urte baino gehiago Grezian

Leitzarra biologoa da eta elikagaien segurtasun eta kalitate gaitako ikuskatzaile lanetan aritzen da. Lana tarteko, bidaiak «asko» egiten omen ditu eta «oso lanpetua» dabilen arren, «asteburuak eta oporrak aprobetxatzea gustatzen zait». Horrez gain, «ahal dudanean» sorterrira bisita egiten du: «urtean behin edo bitan». Bihotzean baitarama herria, bereziki, «etxeak, lagunak, pestak, pagoak, langarra...». Are gehiago, aitortu digunez, «ez dut uste herrimina sendatzen denik». Hala ere, familia eta lagunekin duen harremanari eusten dio eta euskara ere ez du galdu: «hemen ez dago Euskal Herriko jenderik eta alabarekin bakarrik hitz egiten dut euskaraz. Nahiz eta biok bakarrik aritzen garen, ederki ikasi du hizketan». Horren harira, garbi du «nahi izanez gero, atzerrian ere ikas daitekeela euskaraz».

Bada argi duen beste kontu bat: «denentzat, eta batez ere gazteentzat, oso komenigarria da etxetik abiatu eta herri-zulotik kanpo ibiltzea, nahiz eta gero sorterrira itzuli».



Jone Bonnemaison Suitzan, Leman lakuaren ondoan.

«Ez dut epe luzeko aurreikuspenik egiten»

JONE BONNEMAISON VIDART URDAZUBIARRA SUITZAN

Alpeen magalean, Leman lakuaren ondoan, hantxe dago Montreux hiria (Suitza), eta hantxe bizi da Jone 32 urteko urdazubiarra, 2013ko irailaz geroztik. Berak dioenez, «kasualitatez» hartu zuen Suitzarako bidea: «lruñeko lantegi batean lanean ari nintzela, fabrikako eraikin nagusia itxi eta Suitzan duten fabrika batean lan egitea proposatu zidaten». Baiezkoa erran zuen eta han segitzen du geroztik, prozesu kimikoen segurtasun ingeniari gisa lanean.

Sorteritik urrun bizitzea ez zen arrotza izan beretako: «lehen ere Eskual Herriko, Frantziako eta Espainiako hainbat hiritan bizi izan nintzen». Hala ere, «hasmenta intentsoa» izan zela aitortu digu: «lan berria diziplina handia duen herrialde batean... Suitzan, ordenari izigarriko balioa ematen diote. Arauak errespetatzen ez dituztenak salatzeak ohitura dute, herriar ekintza dela diote».

Herriminik ez

Ez da damutu hartutako erabakiaz: «zentzu guztietan aberasgarria izan da», aitortu digu. Inguru ederrean bizi da eta gehien maite duena Leman laku bazterrean ibiltzea omen da. Gainerakoan, berriki seme bat izan duenez, «oraino amatasun-bajan nago eta umearekin pasatzen dut egun guztia».

Gustura dagoen seinale, ez omen du hainbertze herminik sentitzen, «eta dudanean, bakantzak hartu eta etxerat itzultzen naiz». Urtean hiruzpalau aldiz egiten du hori, eta «lanarekin ere noizbehinka Eskual Herrirat joateko aukera izaten dut». Familia eta lagunez ere oroitzen da, baina «gaur egun ditugun komunikazio tresnekin, nahi dugunean komunika gaitezke». Bada, ordea, faltan duen bertze zerbait: «itsasoa eta Eskual Herriko udaberri eta udazken ederren falta sumatzen dut».

Bistakoa da kabi berrian kontent dagoela. Bere irudiko, «Suitza herrialde polita eta baketsua» da. Edozein moduz, onartu digunez, «ez dut epe luzeko aurreikuspenik egiteko ohiturarik». Are gehiago, «hemendik urte batzuetarat, bertze herri batean bizitzeko aukera izanen banu, esperientzia hori eman nahiko nioke nire familia ttipiari».



Begoña Leonet Australian, Sidney.

«Ez nuke esango berriz itzuliko ez naizenik»

BEGOÑA LEONET CLAVER ARANOARRA AUSTRALIAN

Betiko amets bat egia bihurtzeko ilusioarekin hartu zuen 49 urteko aranoarrak munduaren bertze puntara joateko erabakia, Australiara. Adelaida hiri handian bizi izan zen hamalau hilabetez eta «erabaki ausarta» hartu zuela dioen arren, pozik ibili zen: «ez zen erraza izan, baina ilusio haundiarekin hartu nuen erronka».

Hasieratik australiarren bizimodura egokitzen saiatu zen: «ezkerretik gidatzen ere ikasi nuen lehendabiziko hilabetetik», dio umoretsu. Zentro teknologiko batean ikasiz eta lan eginez, «ahal nuen guztietan toki berriak ezagutzeko» aprobeztatu zuen. Toki ederrak bisitatu zituen: «milaka kilometrotako hondartza eta baso zoragarriak, ikaragarriko basamortua Australia zentrolean...». Toki bereziak ere bai, koalen ospitalea bezala: «sute ikaragarriak daude eta koalak erreskatatzen dituzte». Sekula ikusi gabeko animaliak ere ikusi zituen. Anekdotak asko ditu, kanguruarena, kasu: «esana zidaten gauzez ez gidatzeko, baina behin berandutu eta bihurtzeko batean sekulako kangurua agertu zitzaidan. Justu-justu saihestu nuen». Bertakoen hitzorduetan ere ez zuen hutsik egin: «jaialdi, kontzertu, feria, zaldi lasterketa, futbol partidetak... joatea gustatzen zitzaidan».

Etxetik urruti izanagatik, ez zen euskaldunengandik urruti ibili: «Sidney eta Melbourneko Euskal Etxeen bitartez, euskaldunekin egon nintzen». Australiar asko ere ezagutu zituen, baina bereziki aborigenak erakarri zuten: «gaur egun, Australian bizi den gehiengo ingelesez ondorengoa da, baina aborigenak dira bertako biztanleak». Bereziak omen dira: «ehunka hizkuntza dituzte, etniaren arabera, nahiz eta batzuk galduak diren. Legedi propioa dute eta beraien lur eta eskubideak tarteko, Gobernuarekin eztabaida handia dute. Alderdi politikoetan ere badute ordezkartza».

Herrialde zoragarria

2017ko abenduan itzuli zen etxera, baina «esperientzia oso ona» izan zela azpimarratu digu: «Australia herrialde zoragarria da eta joaten dena ez da damutuko». Gehiago ere aitortu digu, hango egonaldian «herria, familia eta lagunak gogoan» izan zituen arren, «ez nuke esango ez naizenik itzuliko».



Belateko lanen jarraipen batzordean eman zuten hartuko diren neurrien berri. NAFARROAKO GOBERNUA

Kamioien joan-etorria mugatuko dute Belaten

Ekainaren 4an abiatuko dituzte neurriak eta matrikula bakoiti eta bikoitien arabera, astero txandakatuko dira

TTIPI-TTAPA

Belate eta Almandozko obren jarraipen batzordeak Belateko lanek irauten duten bitartean Nafarroako Gobernuak proposaturiko murrizketak aintzat hartzea ebatzi du. Horrela bada, N-121-A, NA-1210 eta N-121-B errepideetan ibilgailu astunak murrizteko neurriak hartuko dituzte. Ekainaren 4tik uztailaren 15era bitarte indarrean egonen dira, 06:00etatik 22:00etara.

Murrizketak, matrikula zenbaki bakoiti eta bikoitien arabera izanen dira. Zehazkierrateko, ekainaren 4tik 10era bitarteko astean matrikula bakoitia duten ibilgailu astunak baino ezin izanen dira ibili. Astero-astero, matrikula zenbakiaren arabera, txandakatuko dira neurriak. Hala, ekainaren 11tik 17ra matrikula bikoitidunak baino ez dute pasatzerik izanen. Bertzeak bertze, zerbitzu publikoa es-

kaintzen duten autobusak eta eskumenez araututako ibilgailuak salbuetsiko dira. Aitzitik, ekainaren 4tik azarora bitarte txirrindulariak eta bertatik pasa daitezkeen kirol ekitaldiak egitea debekatuko da.

Finen, murrizketek N-121-A errepideko 5,4 kilometroan (Ezka bako tunelen ondoko biribilgunean) eta 66 kilometroan (Berako sarreran); eta N-121-B (Ornoz Mugairi-Dantxarinea) eta NA-1210 (Belaten) errepideetako ibilbide osoan izanen dute eragina.

Garapen Ekonomikorako Lehendakariordeak, Manu Ayerdik, gidatutako jarraipen batzordearen hirugarren bilkura horretan Baztan, Lesaka, Doneztebe eta Sunbilla Udalak, Baztan-Bidasoa Turismoa eta inguruko garraio enpresek parte hartu dute.

Zakurren errabiaren kontra txerto kanpaina egingen da egunotan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako txerto kanpaina ekainaren 6tik 14ra egingen dute Bortzirietan. Gogoratu behar da lau hilabete-tik goitiko zakur guziei errabiaren kontrako txertoa eta identifikazio-mikrotxipa paratu behar zaiela eta bi urtero txertoa berritu behar zaiela.

Ekainaren 6 eta 7an, asteazken eta ortzegunean, 16:00etatik 19:00etara Berako Elektrobian izanen da albaitaria (Kultur Etxeko aparkalekuan).

Ekainaren 8an, ortziralean, 16:00etatik 19:00etara Etxalarko Mataderoan izanen da.

Ekainaren 11n, astelehe- nean, 16:00etatik 18:00etara Arantzako udaletxeko arku- petan izanen da.

Ekainaren 12an, asteartean, 16:00etatik 18:00etara Igan- tziko aparkalekuan izanen da.


Ekainaren 13an eta 14an, asteazken eta ortzegunean, Lesakako suhiltzaileen parkean izanen da, 16:30etik 18:30era.

Txertoaren prezioa 21 euro-koa da, identifikazioarena bakarrik 31 euro, identifikazio eta txertoarena 41 euro eta jabe aldaketarengatik 10 euro ordaindu beharko da (BEZa barne).



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



ikubilu
OSTATUA
SAGARDOTEGIA

Uralde karrika, 6
BERA
T. 948 110 913

HARAGIA ETA ARRAINAK BRASAN
Eguneko menua | Asteburuko menua



Altzateko bestetan menu berezia



XXIV. Dantzari Ttiki Eguna larunbat honetan egingen dute

Herrikoiez gainera, Legazpi, Lezo eta Lesakako dantzariak karrika eta auzoetan bilduko dira

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Gure Txokoa Elkar-teak Dantzari Ttiki Eguna antolatu du larunbat honetan, ekainak 2. Aurtengoa XXIV. edizioa izanen da eta Gure Txokoako dantzarietz gain, Legazpiko Korosti, Lezoko Murixka eta Lesakako Tanti-
rumairu dantza taldeetakoak bilduko dira.

10:00etan harrera egin ond-
otik, 10:30ean herriko karri-
ka eta auzoetan ibiliko dira
dantzariak. 12:30ean Altzate-
ko plazan jaialdia egingen dute
eta eguraldi txarra eginez gero,
Eztegara pilotalekuan bilduko
dira. Arratsaldean, 16:00etatik
18:00etara Oharkabe taldea-
rekin dantzaldia izanen da
Altzateko plazan.

Ez da asteko kultur hitzordu
bakarra izanen. Izan ere, or-

tziralean, ekainak 1, Baztan-
Bidasoko bertsopaper lehia-
ketako sariak banatuko dituz-
te 18:00etan Kultur Etxean.
Ekainaren 9an, berriz, Berako
Abesbatzak kalejira egingen du
herrian barna, 17:30ean Age-
rratikabiatuta. Biharamunean,
Baztan-Bidasoko ekoizleen
merkatua egingen dute 10:00eta-
tik 13:30era Ricardo Baroja
eskolaren atarian.

Berako Oihua

Bestetako programarekin ba-
tera banatzen den *Berako
Oihua* aldizkarirako artikuluak
idazteko deia luzatu du Ud-
al Kultura Batzordeak. Interesa-
tuek ekainaren 15erako aur-
keztu beharko dituzte lanak:
kultura@bera.eus helbidera
bidaltzen ahal dira edo, ber-
tzenaz, zuzenean Kultur Etxe-
ra eramaten ahal dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

50. urteurrena giro ederrean

Toki Ona institutuak besta giroan borobildu zituen 50.
urteurreneko ospakizunak, maiatzaren 19an. Eguerdian, 120
bat lagun bildu ziren bakaltzera eta ondotik, Agerralderen
musika doinuekin, kantari eta dantzan aritu ziren. Guraso
Elkartearen 40. urteurrena ere, egun berean ospatu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Prieto Matematika Olinpiadan

Mikel Prieto Etxegarai herri-
tarrak hirugarren saria lortu
zuen joan den maiatzaren 19an
Tuteran egin zen Nafarroako
Matematika Olinpiadan. Fro-
ga binaka egiten da eta Prietok
Larraintzarko institutuko Eri-
ka Goia ikaslea izan zuen bi-
kote.



Mikel Prieto olinpiadan. UTZITAKO

Antzerki aukera ederra

Bertze urte batez, Mugaz Gain jardunaldi-
esker, antzerki-
gozatzeko aukera izan dute herritarrek. Maiatzan, lau
egunez, Jesusen Bihotza, Labiaga Ikastola, Ricardo Baroja eta
Tokia Ona ikastetxeetako ikasleak taula gainean aritu ziren,
baita herritik kanpoko bertze antzerki taldeak ere.

Anterola
Tecniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta
- Internet konexio simetriko ultralasterra

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

CAF-Elhuyar sari handia irabazi dute Etxabide ahizpek

Dibulgazio-artikulu orokorraren saria irabazi dute, plastikoen arazoari aurre egiteko irtenbideak ikertzen dituen artikuluarekin

AITOR AROTZENA

CAF-Elhuyar sariak banatzeko ekitaldia egin zuten maiatzaren 16an Donostiako Tabakalerako Kutxa Kultur Plazan. *Egin jauzi, eta sortu uhin hedakorrak* zen sariketaren leloa aurten, eta horretara ausartu direnei aitortza egiteko asmoz egin zen ekitaldia. Zentzia eta teknologia gizarteratzeko ahalegina egiten dutenen lana aitortzea da sariketaren helburua, baita xede horrekin bat egiten duten proiektuak bultzatzea ere. Saridunen artean, Lesakako Alaitz eta Iraia Etxabide Etxeberria ahizpak daude.

Aurten 71 lan aztertu behar izan dituzte epaimahaikideek, eta, haien artean, dibulgazio-artikulu orokorraren saria Alaitz eta Iraia Etxabide Etxeberria ahizpek irabazi dute,



Iraia Etxabidek jaso zuen saria.

Irtenbide zirkularra, mundua irensten ari den nonahiko zaborraren kontra izeneko artikuluarekin. Plastikoen arazoari aurre egiteko irtenbideak ikertzen ditu Alaitzek, eta idatzi duen artikulurako ilustrazioak egin ditu Iraia ahizpak. Herriko bi ahizpen arteko elkarlanaren emaitza izan da lan saritua. 2.000 euroko saria eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura jaso dute, bertze saridunek bezala.

Ekaineko lehen asteburua ekitaldiz betea izanen da Beti Gazteren eskutik

A. AROTZENA

Beti Gaztek hainbat ekitaldi antolatu ditu ekainaren lehen asteburu honetarako. Ortzi-ralean, *Ezagutu Dezagun Lesaka* lehiaketako sari banaketa egingen dute. Elutxa txarangaren eta Beti Gazteko lerro dantza taldearen eskutik kalejira egingen dute, 19:00etan.

Larunbatean Beti Gazte elkartearen Eguna ospatuko dute, egitarau zabalarekin.

Igandean, elkartearen argazkilaritza taldeak hirugarren aldiz Argazki Rallya antolatu du. Bilduma onenari 150 euro eta

diploma emanen zaio eta gai bakoitzeko irabazleak 75 euro hartuko ditu. Bortzirietako argazki onenari ere 100 euro eta diploma emanen zaizkio. Igande 09:00etatik 10:00etara eman beharko da izena Beti Gazten (10 euro). Sari banaketa eta irabazleen argazki emanaldia ekainaren 23an, 19:00etan egingen da.

Egun berean, Elias Garralda VI. margo lehiaketa azkarra ere antolatu du Beti Gaztek. 500 eta 300 euroko sariak izanen dira onenentzat eta 150 eurokoa herriko onenarentzat.



RAFAEL ENETERREAGA

Bortzirietako Abesbatzen III. Topaketa

Giltzarri Abesbatzak, Udalaren laguntzaz antolatutako Bortzirietako Abesbatzen III. Topaketa ospatu zuten maiatzaren 12an. Giltzarriekin batera, Burgosko Isabel I Unibertsitateko Ganbera Abesbatza eta Azkoien Udal Musika Eskolako Abesbatza aritu ziren kantari.



TANTIRUMAIRU IKASTOLA

35. Txoko-Txiki lehiaketako saridunak

Tantirumairu ikastolak sariak banatu ditu: ipuinetan, Arhane Silveira, Zihara Taberna, Oinatz Aiestaran, Amaiur Martinez, Onintze Iparragirre eta Janire Otxandorena izan dira saridunak; ilustrazioetan, Elorri Arotzena, Beñat Aiestaran, Irati Ubiria, Unax Bereau, Eneko Irazoki eta Ekiñe Salgado.



Hemen erabili



LESKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESKA
T. 948 63 71 27



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

XXV. Gasna eta artisau feria prest daude astebururako

Bigarren ardi zakur lehiaketa egingen dute larunbatean eta gasna lehiaketa eta kantu bazkaria igandean

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 2 eta 3rako dena prest dauka Altxata elkarteak. Honako egitaraua izanen du gasnaren feriak:

Ekainaren 2a

16:30ean Etxalarko II. Ardi zakur lehiaketa egingen da Errota pareko belatian. 19:00etan Etxalarko dantzarien saioa frontoian. 22:00etan Herriko musikarien *Jam Session* Herriko Ostatuan.

Ekainaren 3a

10:30etik 14:00etara eskulangeileen erakusketa eta salmentak frontoian. Goizean ardiak ile mozte erakustaldia. 10:00etatik 11:30era lehiaketako ardi gasnaren harrera. 12:30ean Etxalarko trikitilarien saioa.



Gasnak lehiatzen eta salgai izanen dira.

13:30ean XXVI. Eskualdeko Ardi Gasna Lehiaketako sari banaketa.

14:00etan kantu bazkaria Har-kaitz Allur eta Maddalen Arzallusek girotua. Bazkarian gasna lehiaketara aurkezten diren gasnak dastatzeko aukera izanen da.

Egun osoz eskola zaharretan Etxalarko eskulan ikastaroko lanak ikusgai egonen dira eta goizean Iriondoan baserriko lan tresnen erakusketa.

Aitor Danboriena pilota memorialaren 7. edizioa

Maiatzaren 17an hasita, herriko 11 bikote ari dira Aitor Danboriena 7. Memoriala pilota txapelketan. Partidak ortzirale arratsetan edo larunbatetan jokatuko dituzte. Finalerdiak besten aitazineko asteen jokatuko dira, finala bestetan egiteko.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 1a arte izena eman daiteke uztailaren 2tik 27ra, 10:00etatik 13:00etara egingen diren udaleku irekietan parte hartzeko. Izen-ematea Bortzirietako Euskara Mankomunitatean egin behar da, bi asterako edo hilabete osorako izena emateko aukerarekin.



OIHANA SANZBERRO

Muxikoak ikasteko ikastaroa

Muxikoak ikasteko ikastaroa egin dute hainbat dantzarik astero entseguetara joanez. Maiatzaren 19an dantza entsaio orokorra egin zuten bi taldeek elkarrekin Landagain eskolako patioan eta ondotik bazkaria Elutsa ostatuan. Edozein bestetan dantzan hasteko prest daude orain.

Igerilekurako bi sorosle eta ostatuko arduradunak kontratatu nahi ditu Udalak

I. ELIZAGOIEN

Bi sorosle eta ostatuaz arduratuko den langile bat edo bi kontratatu nahi ditu Udalak 2018ko igerilekuen denboraldirako. Igerilekuak ekainaren 23tik abuztuaren 26ra zabalik egonen dira.

Interesatuak ekainaren 4ko 14:00 arteko epea daukate beren eskaerak udal idazkaritzan aurkezteko. Curriculumak, lan eskarmentua, sorosle titulua eta erantzukizuneko adierazpena dira aurkeztu beharreko dokumentuak. Hilabeteko lantasa garbia 1.131

eurokoa izanen da eta esleipendunak 100 euroko fidantza jarriko du kontratua sinatzeko. Lan kontratua ekainaren 22tik abuztuaren 27ra izanen da, 11:00etatik 20:00 arte, jai egunak barne.

Ostatuaz eta sarreraz arduratuko den langile bat ere behar da; lan hau bi lagunaren artean ere egin daiteke, soldata proportzionalki banatuz. Hilabeteko lantasa 786 eurokoa izanen da. Oinarrizko lan sari honi, eguneko sarrerak eta ostatuko irabaziak gehitu behar zaizkio.



USOA
Nekazari kooperatiba

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
- FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA

T. 948 635 214 ETXALAR

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altxata, 17 · BERA



Ezkerrean, mendizaleak Mendi Itzulirako izena ematen eta eskuinean, Ekaitza Elkarteko juntako kideak. MIKEL LARRETxea

420 lagunek egin dute bederatzigarren Mendi Itzulia

Eguraldia lagun, giro ederra izan da Ekaitza Elkartek bederatzigarren aldiz antolatu duen itzulian

NEREA ALTZURI

Aurtengo udaberrian eguzkia ezinean ibili bada ere, joan den maiatzaren 20an Ekaitza Elkartek antolaturiko Mendi Itzulian gogotsu atera zen eta eguraldi zoragarria oparitu zien antolatzaile eta mendizaleei.

Goizean goizetik mugimendua nabaria zen herri eta mendi kaskoetan. Izena emateko mahaia zabaldu baino lehen hasia zen jendea eta hondarrean, 420 mendizalek egin zuten prestaturiko 27,9 kilometrotako ibilbidea. Herriarrez gainera, eskualdeko he-

rrietatik ere etorri zen jendea, baita Euskal Herriko bertze bazterretatik ere. Tontorrez tontor, kaskoz kasko, izaten den ibilbide zirkularrean, Arantzako mendi zirkua osatzeko aukera izan zuten. Plazatik abiatu eta Itsaszelaita, Izu, Ibintza, Ekaitza, Mendaurrean, Illurdi eta Mairubara-

EUSKAL HERRIKO HAINBAT TOKITAKO JENDEA IZAN DA MENDI ITZULIAN

tza gainetatik pasatuz, berriz ere, herriko plaza izan zuten helmuga.

Aurtengo eguraldiarekin, parajeez goatzeko parada izan zuten mendizaleek eta ibilbidea osatu zutenek bi pate eta Mendi Itzuliko buffa eraman zituzten oroigarri.

Bidean bezala, itzuliaren akabailan ere, jan-edariak eskaini zituzten antolatzaileek. Ondotik, laguntzaile batzuk emaniko opariak ere zozketatuz itzuten: Arantzako Hotelean egonaldia; Arakindegia jate-txean bi otordu; Mikel Leiza ekoizlearen oilaskoa; Lorpen-Ternua galtzerdiak eta biserak eta Ekaitza Elkartearen motxila.

Ekaitza Elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkiete laguntzaileei, egunean zehar lanean arituriko herritarrei baita hurbildutako mendizale guztiei ere. Hurrengo Mendi Itzulia hamargarrena izanen da eta bi urteren buruan egingen da.

'Harritik Hazia' antzerkia larunbat honetan eskolan

Hasiera batean, maiatzean egitekoa zen *Harritik Hazia* antzerkia, baina eguraldi txar-ragatik ekainaren 2ra gibelerratu zuten. Hala, Euskara Batzordeak antolatuta, larunbat honetan egingen dute antzerkia, 20:00etan eskolako patioan.

Pintxo potea ortzirale honetatik aitzinera

Ekainaren 1ean, ortzirale honetan, pintxo pote denboraldia hasiko da. Herriko ostatuetan, pintxoak tragoxkarekin hartzeko modua izanen da 19:30etik 21:30era. Pintxoa eta edaria (ardoa, zurittoa edo muztioa) bi eurotan izanen dira.

Eskolako ikasleak kanpaldietan dabilta

Kanpaldien sasoia dute eskolan: 4 eta 5 urtekoak Zugarramurdiko Sorginen Etxean izan ziren maiatzaren 22an eta 23an eta LHko 1. zikloko ikasleak maiatzaren 24 eta 25ean Hondarribian. LHko 2. ziklokoak maiatzaren 30etik ekainaren 1era Lizarrara joanen dira.

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Elektragailuen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

Cristaleria BIDASOA
Tel. 943 61 30 63

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN info@cristaleriabidasoa.com



Biltokiko bazkideak 25. urteurrena ospatzen, 2003. urtean. OSKAR TXOPERENA

Biltoki Elkartea besta haundia prestatzen ari da

Elkartearen 40. urteurrena behar bezala ospatzeko egitarau bete-betea antolatzen ari dira ekainaren 23rako

TTIPI-TTAPA

San Juan bezpera egunerako, ekainaren 23rako, egitarau bete-betea prestatzen ari da Biltokiko junta, lanean gogotsu ari direnaren seinale. Izan ere, elkartearen 40. urteurrena betetzen da aurten eta, orain dela 15 urte egin zen bezala, bazkideentzat ekitaldiz betetako eguna prestatzeko aharleginetan ari dira.

Dagoeneko elkarteko ohar- taulan paratuak daude izena emateko zerrendak, jokoetan aritzeko animatuz. Horretaz gain, garagardo feria, ajoarrie- ro txapelketa, bazkideen baz-

karia, txaranga, musika taldea eta haurrentzat ipuin kontalaria ekartzekotan dabilta. Arratserako ohiko San Juan suak eta afari autogestionatuak ere izanen dira.

Egurra egiteko aukera Frainen

Deialdia zabaldu du Herriko Etxeak nahi duenak Frain aldean su egurra egiteko. Bi lekutan dauzkate pilatuak zuhaitz adarrak, ustiapenen ondotik gelditutakoak: Fraingo errepide azpian, Juanjero- nimoren borda baino lehen, eta Arrietaren borda inguruan.

Iraitz Etxebarria nagusitu da aurten ere VIII. Xabi Telletxea BTT jautsieran

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 12an jokatu zen Xabi Telletxearen omenezko VIII. Jautsiera, Biltokik antolatuta. Egoera nahiko kaxkarean aurkitu zuten ibilbidea bertara etorritako txirrindulariek. Izan ere, hagit eguraldi txarra izan zuten egun guzian, proba guziz baldintzatuz. Iraitz Etxebarria, azken urteetako dominatzailea, nagusitu zen aurtengoan ere, Frain kaxkotik herrira hiru minutu eta sei segundoz egindako jautsierarekin. Daniel Olarra eta Txomin De Vega izan zituen



Jautsierako podiuma. UTZITAKOA

ondotik, baina hamar segun- do baino gehiagoko atzerape- narekin. Pilotalekuan izan ziren sari banaketa eta beren- dua, egun koropilatsua izaten dena behar bezala borobilduz.



OSKAR TXOPERENA

Arberoa Ikastolako 51 lagun eskolan

Hagit balarazio ona egin dute eskolan Donamartiriko Arberoa Ikastolakoek egindako bi eguneko bisitaz. Herrian pasatu zuten gauean eskolako gimnasioan egin zuten lo eta bazkaria elkartean egin zuten, eskolakoekin batera. Ginkana eta dantza entsaioa ere izan zuten azken egunean, elkarrekin.



Zure osasun zentroa Irun erdi-erdian

centro médico
osasun zentroa

Bidasoa

Lezo, 4 - 20301, IRUN

Tel. : 943 63 39 74 - 943 63 40 38

cmbidasoa@centromedicobidasoa.com

www.centromedicobidasoa.com

BERRIKUNTZA

Ginekologia, obstetrizia eta lagunduriko ugalketaren unitate berria Irunen.

OSASUN-ZERBITZUAK	ZERBITZU KIRURGIKOAK	BESTE ZERBITZUAK
• Kardiologia • Familia eta Komunitateko Medikuntza • Nutrizioa eta Dietetika • Psikologia	• Kirurgia baskularra • Kirurgia Orokorra eta Digestio-Kirurgia • Obstetrizia-Ginekologia • Otorrinolaringologia • Traumatologia • Urologia	• Podologia • Erizaintza

ZERBITZU NAGUSI, DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOAK






Neska-mutikoak gustura ibili ziren kanpaldian. SUNBILLAKO ESKOLA

Ikasturteko azken txanpan sartuak dira eskolako lagunak

Aste honetan eskolatik kanpo ingelesa ikasteko 'English Week' programan parte hartuko dute 18 bat ikaslek

MAIDER PETRIRENA

Ikasturtearen hondarrera hurbiltzen hasiak dira eskolako ikasle eta irakasleak eta garai honetan, urtero egiten duten bezala, kanpaldiak egin dituzte. Joan den astean, maiatzaren 21ean, Ituren, Saldias, Beintza-Labaien, Legasa eta Narbarteko eskoletako ikasle eta irakasleekin batera, kanpaldira joan ziren. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Irrisarri Landera joan ziren eta Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoak, berriz, Arantzako Aterpean egin zuten egonaldia. Irisarri Landeko ateraldian, herriko eskolako 36 ikaslek eta lau irakaslek parte hartu zuten eta hainbat joko eta ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten: trenean ibili ziren, ti-betar zubian, zaldian, zentzumenen bidea egin zuten...

Biharamunean, Baxi agurtu eta bazkaldu ondotik, etxera-ko bidea hartu zuten.

Arantzan izan zirenek ere ez zuten aspertzeko tarterik izan. Sunbillatik 45 ikasle joan ziren beraien tutoreekin eta herria ezagutzeaz gain, bertzeak bertze, zuhaitz parkean, jokoetan, herri kirolean eta altxorraren bila ibili ziren.

Ingelesa ikastera

Ekainaren 19a izanen dute azken eskola eguna baina ikasturtea akitu aitzinetik, bertze ateraldi batzuk ere egitekoak dira. Aste honetan, erraterako, maiatzaren 28tik ekainaren 1era, *English Week* eskolatik kanpo ingelesa ikasteko programan parte hartzekoak dira. Hala, 5. eta 6. mailako 18 bat ikasle eta beraien ingeleseko irakaslea Irunberri aldean ibiliko dira egun hauetan.



FELIX MENA

Hamabortz neska-mutikoren Jaunartzea

Maiatzaren 20an herriko zortzi neska eta zazpi mutikok Jaunartzea egin zuten eta eguraldia lagun, egun polita pasatzeko aukera ederra izan zuten. Ezkerretik eskuinera: Omar, Ander, Eneritz, Xabier, Nahia, Alberto, Alain, Iraide, Maialen, Garaine, Eneko, Nahia, Xabi, Ekiñe eta Oihane.



JOSUNE AGIRRE

Mus txapelketako kanporaketa

Maiatzaren 11n jokatu zen Malerrekako Mus txapelketaren herriko kanporaketa Ulibeltzak elkartearen. Hamar bikotek partu hartu zuten eta irabazleak Jose Luis Agirre eta Jose Migel Galain izan ziren eta finalerako txartela lortu zuten. Bigarrenak Patxi Mariñelarena eta Lucio Irazoki izan ziren.

Pako Petrarena Doneztebeko pintxo lehiaketan saritua

Apirilaren 27tik maiatzaren 1era Doneztebeko Merkataria eta Zerbitzuen Elkartek antolatuta, pintxo astea egin zen. Pintxoak dastatu zituztenen artean pare bat zozketa egin zituzten eta horietako bat, 100 euroko saria, Pako Petrarena Arretxearentzat izan zen.



Pako Petrarena saria hartu ondotik.

Erreka Kirol Elkartearen egunak ekainaren 1 eta 2an

Ekainean erreka garbitzea, Basauriko Koralaren emanaldia, futbol taldearen eguna, antzerkia... izanen dituzte

MARGA ERDOZAIN

Erreka Kirol Elkartek, denboraldia behar bezala akitzeko urteroko besta ospatuko du.

Egitaraua

Ekainaren 1ean, ortziralean, 18:00etako eskubaloipartidekin abiatuko dute asteburua. 17:00etatik 20:00etara bitarte puzgarriak izanen dira kiroldegian eta 22:00etan Santa Luzia Plazan jokatu den mus txapelketa handiarekin borobilduko dute ortziralea. Irabazleek 300 euro eta txapeldunordeek 100 euro eskuratuko dituzte. Izen-ematen duen bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Ekainaren 2an, larunbatean, 08:20ean Malerrekako bizikleta bira egingen dute. 10:00etan kiroldegian gazteak eskubaloian ariko dira. 12:00etan Errekako Judo Eskolako erakustaldia izanen da ikusgai. Bien bitartean, pilota partidak jokatu dituzte frontoian. 17:00etan Senior beterranoen aurkako triangularra jokatu da eta atsedenaldie-

tan ikusleek Erreka Dantza Taldearen erakustaldiaz gozatzeko aukera izanen dute. Ondotik, zozketak eta trikopoteoa egingen dituzte. 21:00etan Santa Luzia Plazan bilduko dira, afaltzeko. Asteburua Oharkabe taldearen gaupasarekin akituko dute

Ekainean ekitaldi gehiago

Ekainaren 5ean Mendaurren institutuko ikasle eta boluntarioek Galbaraialde, Ezpelura eta Ezkurra erreka garbituko dituzte.

Ekainaren 9an Basauriko Koralak elizan kontzertua eskainiko du. Urriaren 27an, berriz, Mendi Abesbatzako kideak Basaurira joanen dira Basauriko Ahots Musika Topaketan parte hartzera.

Ekainaren 16an Doneztebe Futbol Taldeak bere eguna ospatuko du. Ekainaren 23an Firin-farandula antzerki taldeak ikasturte bukaerako emanaldia eskainiko du. Egun berean San Juan Suak ospatuko dira eta ekainaren 24an herriko krosa... (zehaztapenak hurrengo TTIPI-TTAPAN).

Agorreta musika eskolako matrikulazioa zabalik dago, ekainaren 15era bitarte

MARGA ERDOZAIN

2018-19 ikasturterako ohiko matrikula epea zabaldu du Udalak. Ikasle arituak ekainaren 1era arte matrikulatzen ahal dira, gainerakoek, berriz, ekainaren 15era arteko epea dute. Gitarra klasikoa eta elektrokia, perkusioa, pianoa,

trikitixa, akordeoia eta txistua jotzen ikas daiteke. Bestalde, haur abesbatzarako ere izena ematen ahal da. Interesatuak arratsalde eskolara hurbiltzen ahal dira. Eskaintzari buruzko argibideak: 636669750 telefonoan edo esmusidoneztebe@gmail.com helbidean.

Ludoteka zerbitzua uztailan eta abuztuan

Bertze urte batez, Udalak uztaila eta abuztuan 09:00etatik 14:00etara ludoteka zerbitzua jarriko du, 2009-2015 artean sortutakoendako. Interesatuak herriko etxeko bulegoan eman dezakete izena (uda osoa 170 euro eta hilabete bat 95 euro ordaindu beharko dira).

Argazki Rallyko 13 kideen lanak aukeratze fasean

I. Argazki Rallyan 13 argazkilarik parte hartu zuten. Udaberria eta Doneztebeko txokoak ziren gaiak eta epaimahaikideek gai bakoitzari dagokion argazkirik hoberena aukeratzeko lan handia dutela jakinarazi dute (saridunen berri hurrengo zenbakian).



UTZITAKO ARGAZKIA

60 artista bildu ziren margo tailerrean

Iciar Mikelerizaren gidaritzapean, 60 artista bildu ziren Santa Luzia plazan maiatzaren 19an. Bertaratu zirenek margotzeko ez ezik, ikasleek ikasturte osoan egindako lanak ikusteko aukera izan zuten. Arratsaldea merendu ederra eginez borobildu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatza ttikiak ikuskizun handia

Mendi Abesbatza ttikiak maiatzaren 18an eliz atarian eskainitako kontzertuak ikusmira handia eragin zuen. Eguraldi bikaina lagun, musika, dantza, kolorea eta umorea izan ziren ikusleen aurpegietan irribarreak eragiteko baliatu zituzten osagaiak.



Finalak herriko bestetan jokatuko dituzte.

Frontenis eta pilota txapeketak abian dira dagoeneko

Esku pilotan zortzi bikote eta frontenisean sei ariko dira norgehiagokan

ARKAITZ MINDEGIA

Hasiak dira dagoeneko bai frontenis txapelketako bai eta pilota txapelketako kanporaketak ere. Gogor ari dira neska-mutilak.

Gizonezkoen esku pilotari dagokionez, zortzi bikotek eman dute izena: Oier Bereau eta Oier, Xabi Altxu eta Aritz Fagoaga, Ismael eta Julen Altxu, Jon Andiarrena eta Hodei Aioroa, Xabin Bereau eta Aitz Aioroa, Egoitz Gorosterrazu eta Mattin Altxu, Gorka Fagoaga eta Jokin Almandoz eta Xuban Altxu eta Ugaitz Elizalde. Nesken frontenisean, be-

rriz, sei bikote ari dira: Naroa Telletxea eta Estefania Etxebeste, Izaro Ariztegi eta Maider Bereau, Maider Goñi eta Haizea Aioroa, Iruñe Bazterrika eta Enara Ariztegi, Maria Larretxea eta Itxaso eta Laura Goñi eta Eider Altxu, zehazki. Ekainean eta uztailean kanporaketekin segiko dute eta herriko bestetako astelehenean jokatu dute final handia.

Herritarrek, lerro hauen bidez, jokalariek guztiei zorte ona opa nahi izan diete, bestetako finalera nor ailegatzaren den ikustera bertaratuko direla jakinaraziz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pulunpariak kanpaldian

Pulunpa eskolako ikasleak kanpaldia izan dira maiatz hondarrean. Haur Hezkuntzako ikasleak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Irisarri Landera joan dira. Gainerakoak, berriz, Arantzako aterpera. Argazkian azken horiek Malerrekako bertze bortz eskoletako ikasleekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehendabiziko jaunartzea egin dute

Pasa den maiatzaren 13an, igandean, Ander Mariezkurrena, Iñaki Bazterrika eta Asier Telletxea herritarrek lehenengo jaunartzea egin zuten San Martin elizan. Eguraldia lagun ez bazuten ere, familiako eta lagunez inguratutik, egun ederra pasa zuten.

TAPICERIA MARTINEZ

- %18ko **DESKONTUA** gure oihaletan
- Egoera txarrean dauden gisa guztietako sofak, aulkiak eta altzariak tapizatzen ditugu
- Funda doigarriak, neurrira egindako espumak edo lumaz betetakoak

- Tapizerian artisauak
- Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
- Entrega eta bilketa dohainik

676 514 852

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

Dantza taldeak materiala erosteko boletoak salgai

Dantza taldeak materiala erosteko zozketa-txartelak paratu ditu salgai, euro batean. Altxunean eta Herriko Ostatuan bina otordu eta Elgorriagako Herriko Ostatuan bi lagunendako pizzak eta edaria zozketatuko dira, uztailearen 13an. Antolatzaileek laguntza eskertuko dutela jakinarazi dute.

Udala udako ingeles ikastaroa antolatzen asmotan

Uztailaren 16tik 30era 10:00etatik 13:30era bitarte bilduko dira bi taldetan

FERMIN ETXEKOLONEA

Joan den urtean bezala, Udalak, CNAIren laguntzarekin, udako ingeles ikastaroa antolatzen asmoa du. Ikastaroa Haur Hezkuntzako (3 eta 6 urte bitarteko) eta Lehen Hezkuntzako (6 eta 12 urte arteko) ikas-mailetan dabiltzan gaztetxoei bideratua izanen da eta mailaren arabera, bi talde egingen dira.

Uztailaren 16an hasi eta uztailaren 30era bitarte, aste-

lehenetik ostiralera, eskaintzea aurreikusiko dute (uztailaren 25a, asteazkena, besta eguna mantenduz). 10:00etatik 13:30era herriko eskolan bilduko lirateke eta parte hartzeko 115 euro ordaindu behar-ko lituzkete.

Ikastaroa aurrera ateratzeko bi talde osatzea beharrezkoa denez, maiatz hondarrera bitarte udaletxera deitu edo bertara joanez informatzeko deia egina zuten.



Adinaren arabera, bi taldetan banatuko dira. IZASKUN ZUBIALDE

Lau neska-mutikok egin dute jaunartzea

Argazkian ageri diren Xabier eta Unai Mendiburuk, Egoi Fagoagak eta Lierni Arregik joan den maiatzaren 20an egin zuten lehendabiziko jaunartzea. Eguraldia lagun, ederki pasa zuten lagunekin eta familiarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko Ostatua ekain hasieran irekiko dute

Hilabete batzuk itxita egon ondotik, Herriko Ostatua berri ere errentan hartuko dute. Iturenen bizi den Nagore Diaz eta Zubietako Anuska Garrote dira hemendik aurrera ostatuaren kudeaketaz arduratu-ko direnak. Dagoeneko garbitzen, txukuntzen eta beharrezkoa duten materiala garraiatzen hasiak dira. Ilusioz eta gogotsu hartuko dute ekain hasierarako aurreikusia duten irekiera eta herritarrek ere kontent daude. Lerro hauen bidez zorte ona opa nahi izan diete.

Besta Berri eta Oritzako festa ekain hasieran

Ekaineko lehendabiziko bi asteburuetan mugimendua izanen da herrian. Lehendabiziko igandean Besta Berri izanen dute. 18:00etatik 20:00etara Hauspolariet musika-rien doinupean gazta lehiaketa eta luntxa izanen dituzte. Ekainaren 9an, larunbatean, berriz, Oritzako eguna izanen dute. Urtero bezala, bazkariaren aitzakiapean, egun osoko festa izanen da. Trikitixa lagun, mahai-inguruan kantu kantari eta kontu kontari aritzeko tarteak izanen dute herritarrek.

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Ohe estalki kolekzio anitza

edredoi fundak · albormozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



Doneztebeko beilatoki berria kudeatuko duten langileak. Jende aunitz izan zen inaugurazio ekitaldian. TTIPI-TTAPA

Beilatokia ireki du Baztan-Bidasoak Donezteben

Aparan industrialdean dagoen 440 metro koadroko instalazioa maiatzaren 21ean inauguratu zuten

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Baztan-Bidasoa Ehorzketa Zerbitzuak Donezteben ireki berri duen beilatokia inauguratu zuen maiatzaren 21ean, astelehenean eguerdian. Aparan industrialdeko 1-3 nabean egin dute beilatokia eta tokiko erakundeetako ordezkariak eta herritarrek izan ziren astelehen eguerdian egindako ekitaldian. Langileek, Uja Telletxea buru zutela, ongietorri solas batzuk egin zituzten, beilatokiaren ezaugarriak aipatuz. Miren Martin eta Maribel Macuso soinulariekin, Andrea de Rueda eta Itxaso

Estangak dantzatzutako Aurreskuaren ondotik, Juan Zabala apezak instalazioa bedeinkatu zuen eta Xanti Uterga alkateak moztu zuen zinta. Beilatokiak 440 metro koadro ditu eta bi areto dotore: Mendaur eta Xaruta.

Doneztebeko alkateaz gain, Andres Etxenike Bertizarana-

**XANTI UTERGA
ALKATEAK MOZTU
ZUEN ZINTA
INAUGURAZIOAN**

ko alkatea, Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatea eta bertze zenbait udal agintari eta herritar ere agertu ziren ekitaldira.

Hasierako ekitaldiaren ondotik, Elgorriagako bainuetxeak prestatu eta zerbitzatutako luntxa eskaini zuten eta bertaratutakoek instalazioak ikusteko aukera izan zuten. Astelehen arratsaldean ere zabaldu zuten lokala, eta edozeinek bisitatzeko aukera izan zuen. Maiatzaren 22tik 25era, ate irekien jardunaldiak egin zituzten.

Beilatokiak 440 metro koadro ditu eta Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranako herritarrei zerbitzua emateko sortu dute, baita Bortziriak eta Baztangoendako ere. Harrera eta familientzako gelez gain, hildakoendako bi areto ditu, guztiz hornituak. Ana Mari Arregi, Jose Joaquin Ilarregi, Begoña Almandoz, Cornelio Uhalde eta LuisJavier Uja Telletxea dira langileak.

Alternatiben herria ekimena eginen dute Iruñean

Ekainaren 2an Iruñean eginen dute Alternatiben herria, egun osoko ospakizun eta gogoeta festa, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladako kideek antolatuta. Alternatiben Herria, bertze gizarte eredu baten alde lan egiten duten pertsonek eta taldeek antolatzen ari diren ekimena da. Sistemari alternatibak badaudela erakusteko eta alternatiben topagune izateko.

Ekimenaren aurkezpena egin zuten joan den astean Elizondon eta Beran.

Gure Esku Dagok giza katera joateko deia egin du

Gure Esku Dago taldeak ekainaren 10ean, igandean, eginen den giza katera joateko deia egin du. Nafarroa Iparraldeko herritarrei Zarauzko 25. kilometroa egokitu zaie eta parte hartu nahi dutenek herrietako mahaletan edo www.gizakatea.gureeskudago.eus web orrialdean eman dezakete izena (tokia gordetzeko bortz euro ordaindu beharko dira eta trukean giza katearen zapi emanen zaie). Giza katearen elastikoa erosteko aukera ere eskaini dute, hamar 9 eurotan.



Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HORMANN banatzaile ofiziala





TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza





*Eguzkiaz
babestu
toldo batekin*





Adava elkartearen sortzaileetako batzuk. UTZITAKO ARGAZKIA

Amiantoaren biktimek elkarteak sortu dute Nafarroan

Lesakako Arcelor Mittal, Altsasuko Sunsundegui eta Tafallako Luzuriaga enpresetako langile ohiak dira bultzatzaileetako batzuk

TTIPI-TTAPA

«Arduratuta gaude amiantoaren eraginez sortutako gaixotasunak handitu egin direlako». Eta horrexegatik elkarteak sortu dute Nafarroako amiantoaren biktimek: ADAVA. Lesakako Arcelor Mittal, Altsasuko Sunsundegui eta Tafallako Luzuriaga enpresetako langile ohiak dira elkartearen bultzatzaileetako batzuk eta argi dute, «amiantoarekin lortutako gaitz gehienek ezgaitasunak sortzen dituztela edota hiltzaileak direla, hiltzaile isila».

Gaixoei eta haien familiei informazioa eta aholkuak eman

nahi dizkiete, biktimek zer egin behar duten jakin dezaten. Izan ere, ADAVAren irudiko, «nahiz eta lan munduan hagitz zabaldua egon den amiantoaren erabilera, hagitz gutti dira gaixotasun profesionalen erregistroan sartu diren kalteak». Are gehiago, «enpresek, mutuek eta prebentzio zerbitzuek ja-

AMIANTOAK KALTETUTAKOAK AITORTZEA NAHI DU ELKARTEAK

rrera oztopatzailea izan dutela» uste dute eta «administrazioek gaixo hauen jarraipenerako dituzten programek ga-bezia handiak dituztela».

Eskaera argiak

Alde batetik, amiantoarekin kontaktua eduki dezaketen pertsonak aitortu eta erregistro batean biltzea nahi dute, eta «mediku azterketa eta beselako kontrol berezituak egitea». Horrekin batera, amiantotik eratorritako gaixotasunen erregistroa osatzea ere eskatzen dute eta horretan, Osasunbideak eta Nafarroako Lan Osasunerako Institutuak parte hartu beharko luketela diote.

Bertetik, kaltetutakoei edota haien familiei diru-laguntzak eta kalte-ordainak «berekala» ematea garrantzitsutzat jotzen dute eta horren harira, Espainiako Gobernuari amiantoak kaltetutako pertsonen zuzendutako konpentsazio-funtsa sortzeko eskatu diote. Bide beretik, kaltetutako pertsonak aurretiaz erretira daitezen, behar den legedia onartzea ere galdegiten dute. Horrez gain, amiantoaren erabilera eraikin publiko eta pribatuetan azterketak egin beharko liratekeela uste dute, «mineralak dagoen edo ez jakiteko».

Helburu horiek lortzeko, garrantzitsua ikusten dute amiantoak kaltetutakoak bildu eta elkarteak bazkide egitea. Informazio gehiago: ada van2018@gmail.com edo 661 129440.

Europako WIFI4EU ekimenean izena eman dute Aresok eta Urdazubik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mendialdeko zortzi udalerriek eman dute izena Europar Batasuneko udalerriek Internetarako sarbide publikoa eta doakoa izateko, EBk indarrean jarri duen WIFI4EU ekimenean. Horien artean daude Areso eta Urdazubi.

Ekimen horren baitan, 15.000 euroko finantzaketa emanen da abiadura handiko Internetarako sarbide-eremu publikoak eta libreak martxan jartzeko, 30 Mbps-ko abiadurarekin edo hortik gorakoarekin. Laguntza beharrezkoa den azpiegituraren gastuak estaltzeko izanen da. Udalerriek, berriz, Internetarako konexio-zerbitzua jarri beharko dute.

Zerbitzua hobetzeko helburua

120 milioi euroko aurrekontua du ekimenak 2017-2019 aldirako. Lehen deialdi horretan, Europar Batasunak guttienez 420 bonu esleitu ditu Europako herrialdeen artean.

Europako Agenda Digitaleko helburuak lortzeko ekin-tzetako bat da WIFI4EU; hau da, 2020. urterako, Europako herritarren % 100ari 30 Mbps-ko abiadura handiko konektibitatea eman nahi die, baita zerbitzu digitalak bultzatu eta zerbitzu hobeak eman ere.

BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

1ª FERIA DE LA CEREZA DE VAL DE ETXAURI
ETXAURIBARKO
• GEREZIAREN FERIA

10 JUNIO EKAINA 2018

Etxauribarko Gerezia
Cereza del Valle de Etxauri **ARTEA** dastatzen para el paladar

Elizondo eta Baionako ikasleak elkarlanean

Elizondo Lanbide Eskola eta Baionako Bernart Etxepare lizeoko ikasleek elkartrukea egin dute

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

PyreneFP mugikortasun programaren barrenean, Elizondo Lanbide Eskola ikastetxeeko ikasleak Baionan dagoen Bernart Etxepare lizeoko ikasleekin elkartrukea egin dute.

Ikasleen formakuntza hobetzearekin batera, Iparraldeko hezkuntza sistema eta lan-mundua ezagutzea izan dira ekimen honen helburuetako batzuk, eta aldi berean, ikasleen gaitasuna hobetu nahi izan dute.

Truke honetan, lizeoko komertzio ikasleak aste batez Elizondon egon ziren apirilaren 23tik 27ra eta Elizondoko Erdi Mailako administratzaileko ikasleak maiatzaren 14tik 18ra Baionan ibili ziren. Hainbat ekintza egin zituzten elkarrekin, eta horrez gain, bi ikastetxeek komunean dituz-

ten gaitasunak elkarrekin landu zituzten.

Elizondon egindako egonaldian, Baztango udaletxera bisita egin zuten Joseba Otondo alkatearen eskutik, Anizko Jauregia enpresa ere ezagutu zuten, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez merkataritza gida bat prestatu zuten eta taldean bideo grabazioak egin zituzten.

Baionan, berriz, Eusko moneta inguruko azalpenak jaso zituzten eta merkataritza ganbarako zuzendariaren aldetik mugaz gaindiko enpre-

IKASLEEN FORMAKUNTZA HOBETU NAHI IZAN DUTE



Lanbide Eskolako eta Bernat Etxepareko ikasleak Baionan eta Elizondon.

sen arteko harremanak bul-tatzeko egiten ari diren jarduerak azaldu zizkieten. Akitzeko, Lanbide Eskolatik azaldu dutenez, «hiru hizkuntza harremanetan zeuden

trukaketa bat izanik, ikasleek merkataritza egoera batzuk antzetzu zituzten euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez». Hondarreko jarduera hori bideoan grabatu zuten.

Bortzirietako udaleku irekietan izena emateko epea ortziralerarte zabalik

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Urtero bezala, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Dindaia Fundazioarekin elkarlanean, eta LaCaixaren babesarekin, udaleku irekiak antolatuta ditu. Hiru eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei bideratutako udalekuak dira eta ortzirale honetan, ekainak 1, bukatuko da izena emateko epea.

Arantzan, Beran, Etxalarren eta Igantzin udalekuak uztailaren 2an hasi eta uztailaren

27an bukatuko dira. Lesakan, berriz, uztailaren 16atik abuztuaren 10era izanen dira. Herri guztietan, 10:00etatik 13:00 arte izanen dira udalekuak.

Izen-ematea

Izen-ematea Bortzirietako Mankomunitatearen web orriaren bidez (www.bortziriakeus.com) edo telefonoz (948 634 125 edo 680 650 650, 09:00etatik 13:00etara) deituta egin daiteke. Taldea osatzeko herri bakoitzean guttienez zortzi neska-mutiko apuntatzea beharrezkoa izanen da.



Hiru eta hamabi urte bitarteko gaztetxoei bideratutako udalekuak dira. ARTXIBOA

Bortzirietan erroldatuak diren eta bertako ikastetxeetan (D eta B ereduetan) matrikulatuak dauden neska-mutikoen lehentasuna izanen dute. Horrez gain, lau asteetarako edo-

ta bi astetarako izena ematen ahalko da. Lau astetarako 90 euro ordaindu beharko dira; bi astetarako, berriz, 50 euro. Senide gehiago apuntatuz gero, deskontuak izanen dituzte.

Mattin Zelaietak lau eta erdiko txapela irabazi du

Benjaminetan lortu du garaipena, Errekak Josetxo Ezkurra zenaren omenez antolatutako lau eta erdiko txapelketan

JAIONE ARIZTEGI

Ospatu berri da Erreka elkar-teak antolatutako Josetxo Ezkurra memorialaren XXVIII. edizioa. Lau eta erdiko buruz buruko txapelketa horretan eskualdeko hainbat pilotari aritu dira norgehiagokan. Errekako pilotarien arteko finalak jokatu dituzte. Horien artean izan da txapela lortu duen Mattin Zelaieta herritarra.

Txapelketako finalak maiatzaren 19an, larunbatean, jokatu ziren. Bertzeak bertze, Mattin Zelaietak Manex Zelaieta garaitu zuen, sei pun-

tuko aldearekin (12-18). Sei kategoriatako finalak jokatu ziren eta herritarrek benjaminen kartegoriako hirugarren mailan lortu zuen garaipena.

Ezkurak eman zion saria

Koteto Ezkurraren, Josetxo Ezkurra zenaren semearen eskutik ilusio handiz jaso zuen txapela. Gogotsu entrenatu duenez, merezitako uzta jaso du Zelaietak. Herritarrek lerro hauen bidez txapelketan lortutako garaipenarengatik zoriondu nahi izan dute, horrela segitzeko animoak emanez.



Koteto Ezkurak eman zion txapela.

Ekainaren 2an Malerreka Kantuz izanen dute

Ekainaren 2an, larunbatean, Euskara Zerbitzuak antolatutako Malerreka Kantuz egitasmoak herrian izanen du geldialdia. Eskualdeko herritarrek 12:00etan abiatuko dira plazatik, eta trikitixa lagun, euskal kantak kantatuko dituzte, karrikak girotuz.

Malerreka Eguneko mus txapeletan herriko bi bikote

Maiatzaren 11n jokatu zen Malerreka Eguneko mus txapelketako kanporaketa herrian. Imanol Juanena eta Unai Madariaga izan ziren garaile, eta Ibai Iribarren eta Xabier Madariaga txapeldunorde. Bi bikote horiek Sunbillako hartzordura joatekoak ziren.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziakoa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabea Donezteben etxe berria erosteko



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**





Elkarteko ordezkarien batzarrean bidaia eta ikastaroez solastatu eta elkartearen egungo egoerari begiratu egin zieten. FERNANDO ETXEBERRIA

Bilkuretan orain artekoa onetsiz eta aitzinera begira

Hilaren 3an zuzendaritza batzordeko kideak eta 21ean ordezkari guztiak bildu dira

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko zuzendaritza batzordeak 2018ko lehendabiziko seihilekoan egindako bidaia, ikastaroak, mendi-irteerak, jubiloteka zerbitzuak, bigarren seihilekoko bidaia, diru-laguntzak... izan zituen hizpide. Gai horiek guztiak eta bertzelako kontuak ordezkariak ondoko egunetan egin zuten batzarrean izan zituzten lan-gai.

Zuzendaritza batzordearen bilera

Urtarriletik ekainera bitarte zortzi izan dira egin dituzten

bidaia eta guztira 1.344 bazkide hartu dute parte. Oraindik Lurdeseko ateraldia, Alpeetako eta San Juan de la Peña monasterioko dituzte egiteke. Orain artean egin diren mendi-irteeretan 215 lagunetik goiti bildu dira eta indarrean dauden 13 ikastaroetan 347 kide hartzen dute parte. Gainera, ikastaro batzuk diruz lagunduak eta bertze batzuk Caixabank eta Nafarroako Gobernuari esker, doa-koak dira, Hiru jubiloteka irekiaz gainera, laugarren bat irekitzeko bidean da, jaso duten 8.000 euroko laguntzari

esker. Aralar, Arantzazu, Mediterraneo itsas-bidaia, Lezo, Benidorm, Teruel, Albarracín eta Cuenca, Kanaria Handia, Lizarra eta Lodosa, Gesaltza Añana, Gasteiz eta Zumarraga dira bigarren seihilekorako aurreikusi dituzten balizko helmugak.

Epe laburrera ez ezik, epe luzera ere begira hasiak dira zuzendaritza batzordean. Hori horrela, 2019an egin ditzaketen bidaien behin-behineko aurreproiektuaren zirriborroa egin dute. Azken horretan, ohiko bidaiez gainera, Bizkai-ko Meatzaldea, Bilboko alde zaharreko bisita, Madril eta Toledoko irteera, Gandia, Andorra... eta bertze aukera batzuk ere bildu dituzte. Proiektu hori elkarteko ordezkarien esku utziko dute, onetsi aitzinetik haiek ere balorazioa egin dezaten.

Ordezkarien bilkura

Maiatzaren 21ean ordezkariak hartu zuten lekukoa. Bilkuran

zuzendaritza batzordeak mahairatutako kontuak berrartzearekin batera San Juan de la Peña monasterioko irteerara joateko 137 laguneko izena eman dutela jakinarazi zuten. Era berean, Mediterraneo-ko itsas-bidaia egitekoak dutenek pasaportea behar dutela aditzera eman zuten.

Ikastaroak helduz, Bera, Doneztebe, Elizondo, Leiza eta Lesakako kiroldegietan eskaintzen diren ikastaro, jarduera eta bertzelako saioak aitzinera ateratzeko Arkupeak elkarteak bazkide bakoitzari %50eko diru-laguntza emanen diola aipatu zuten, parte hartzera animatzeko dei eginez.

Azkenik, idazkariak elkarteak egun duen egoera islatu zuen. Hain zuzen, 2.728 kide dituela jakinarazi zuen, 2018ko goiti-beheitiak azaleratuz. Horrela bada, urtarriletik 74 kide eman dute izena, eta bertze 35ek elkartearen utzi dute. 300 kide inguru 85 urtetik goitikoak dira.

Heldu den urterako mendi-irteerak zehazten hastekoak dira udan

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 59 mendizalek Leitzako paraje ederretan barrena mendi itzulia egin zuten hilaren 22an. Besteak beste, Santa Cruz ermitan izan ziren. Sagastin bazkaldu ondotik, antolatzaileak hurrengo hitzordua gogorarazi zuen. Txin-

doki izanen da ehunka euskaltzaleren topagune Goierriko eskarmentu handiko mendizaleen urteurrenaren harira egingen duten ateraldian. Gisa berean, urria baino lehen hiru mendizale zuzendaritzarekin bildu eta heldu den urteko irteerak zehaztuko dituzte.



59 lagun bildu ziren Leitzako mendi itzulian. FERNANDO ETXEBERRIA

MALERREKA

Euskaraldiako batzorde eragilea prestaketetan

Belarriprest eta ahobizi anitz erakartzeko beroketa ekimenak antolantzen ari dira

MARGA ERDOZAIN

Topaguneak antolatutako 11 egun euskaraz ekimena prestatzeko Malerrekan ere da goeneko talde eragilea osatu du dute. Talde eragilea buru-belarri ari da lanean azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarteko egitasmo handiak eskual-

tzuna izateko. Aurkezpenak eta bilera irekiak egin eta formakuntza saioak jaso dituzte. Orain, berriz, ahalik eta belarriprest eta ahobizi gehien erakartzeko helburuz, beroketa gisa, ekimenak antolatu eta sustatzeko asmotan dabil-tza.



Bortziriak, Baztan eta Malerreka Euskaraldiako kideak formakuntza-saioan.

NARBARTE



UTZITAKO ARGAKIAK

Arotzenea eskolakoak kanpaldian

Hiru eta zazpi urte bitartekoak Irisarri Landera eta zortzitik goitikoak Arantzara joan ziren. Ttikiek zentzumenen bidean ibiliz eta amuarrainei janaria emanez eta txoriak ikusiz gozatu zuten; koxkorragoek zuhaitzetan ibiltzeko, herria ezagutzeko eta herri kiroletan jokatzeko aprobetxatu zuten.

Aitzari rustikoak
Aitzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Dekorazio proiektu integralak



Parte-hartzea ardatz duten hiru proiektu saritu ditu, tartean Leitza Kontsumituz.

Gobernuak Udalaren Leitza Kontsumituz proiektua saritu du

Proiektuaren berrikuntza, tokiko eragileen parte-hartzea eta inplikazioa, lankidetzak sortzea... nabarmendu ditu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Herriarrek Parte Hartzeko Jarraitutasun Egokien Lehiaketaren harira, herritarren parte-hartzea ardatz duten hiru proiektu saritu ditu.

Horrela bada, parte-hartzea hobetzeko ezagutzak eta tresnak eskaintzen dituzten proiektuak balioetsi nahi izan dituzte. Tokiko Erakundearen mailan aurkeztutako bost proiektuetatik Leitza Kontsumituz proiektua izan da saritua. Epaimahaikideek berrikuntza, tokiko eragileen parte-hartzea eta inplikazioa, lankidetzak

sareak sortzea, beste herrietara eramateko gaitasuna eta erabilitako baliabideen eraginkortasuna nabarmendu dituzte.

Leitza Kontsumituz prozesuarekin batera, Nafarroako Gobernuak departamentuei edota enpresa publikoei herritarren parte-hartzeari dagokion sari publikoa Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planak jaso du. Azkenik, EDER Kontsultazioaren Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimenduko Eskualdeko Estrategia Proiektua izan da toki-mailan nabarmendu dutena.

Artilearen kudeaketa izanen dute hizpide

Mendialdea Mankomunitateak antolatuta, ekainaren 5ean, 11:30ean artilea kudeatzeko proposamena aurkezteko bilera izanen dute herrian. Lerro hauen bidez, Mankomunitateak eskualdeko artzain guztiei bilerara joateko deia egin nahi izan die.

Anikotek udako kirol eskaintza atera du

Maiatzaren 29an eta 30ean ziren izen-emateko azken egunak. Aurtengo udan tonifikazioa, *total training*, pilates, *ciclo-tonic*, yoga, zirkuitu gidatuak eta gaztetxoentzat joko eta jolasak antolatu dituzte. Informazio gehiago: kirolak@leitza.eus.

'Txotx!' egiteko aukerarik ez da faltako ekainaren 9ko Sagardo Egunean

TTIPI-TTAPA

Kultur Aroaren azken txanpan sartuko dira herrian. Igandean organo eta tronpeta kontzertua izanen dute elizan, 19:00etan. Hurrengo larunbatean, ekainaren 9an, berriz, Sagardo Eguna izanen dute, hamargarren aldiz. 19:00etan, herriko plazan, zintzurak Gi-puzkoa eta Nafarroako hainbat sagardoz bustitzeko eta inguruko tabernarien pintxoak dastatzeko aukera izanen da. Aurretik, 17:00etan zehazki, Erleta eskolan umeentzako sorpresa izanen da.



Jendetza biltzen da Sagardo Egunean.

'Txotx!' artean ibili ondotik pesta ondorenari aurre egiteko tarte izanen dute. Izan ere, hurrengo hitzordua ekainaren 17ko Ehoziri Topaketa izanen da, 11:00etan, plazan.

Ekainaren 16ko Larreen Egunean lehen sektoreko ekarpenak ezagutaraziko dira

TTIPI-TTAPA

Leitza eta Aresoko Udalek, baserriarrek bi herriotan egiten duten ekarpen soziala eta kulturala balioesteko eta paisaia eta lurraldearen mantentzean egiten duten lana ezagutarazi eta aitortzeko Larreen Eguna antolatu dute. Ekainaren

16an izanen dute hitzordua. Egitaraua Kornietan eginen den bazkariarekin borobilduko dute. Txartelak ekainaren 12ra arte eros daitezke Astiz edo Maimur liburu-dendetan edo Musunzar zein Torrea tabernetan (22 euro; langabe edo ikasleek 15; haurrek 10).



UTZITAKO ARGAZKIAK

Autobabes ikastaroa izan dute herrian

Joan den maiatzaren 12an Autobabes ikastaroa izan zuten herrian. Parte-hartzaileek mehatxuzko egoera baten aurrean izan beharreko erantzun emozionala eta autokontrola landu zuten eta autobabeserako teknika erraz bezain eraginkorretan trebatu ziren.

Lasterkariak Mendi Erronkarako prest daude

Ekainaren 2an egingen duten VI. edizioan Joan Mari Torrealdai omenduko dute

TTIPI-TTAPA

Larunbatean, ekainaren 2an, herrian izanen den Euskal Herria Mendi Erronkara begira daude kirolzale asko. «Euskal mendizaletasunaren nortasuna, mendi lasterketa, lurraldetasuna, ofizialtasuna, Plazaola natur gunea eta euskara sustatzea» helburu duen 67 kilometro eta 7.200 metroko gainbehera egiteko prest daude dagoeneko. Lerro hauek idazterakoan 720 lasterkaririk izena emana zuten. Aurreko edizioetan ez bezala, plaza batzuk hutsik egonagatik, jendearen erantzunarekin «oso pozik gaude» adierazi zuten antolatzaileek. Bide batez, lasterkariei ez ezik, «kirolzale guztiei» bertaratzeko deia egin nahi izan zieten.

Egitaraua

06:00etatik 07:00etara bitarte dortsalak banatu eta Joan Mari Torrealdai omenduko dute. 08:00etan plazatik abiatu eta Pagozelai, Gaintza, Albi, Putzuzar, Lekunberri eta Idiazabal balen barna, hasierara itzuliko dira. Lehen korrikalariak



08:00etan abiatuko dira plazatik.

14:00 aldera iritsiko dira eta 15:00etatik 21:00etara lasterkariei paella eskainiko zaie. Sari banaketa 20:00etan egingen dute.

Bezperatik mugimendua

Egun handia larunbatean izanen bada ere, bezperatik mugimendua somatuko da herrian. 17:00etatik 19:30era bitarte dortsalak banatuko dituzte eta 17:00etatik 21:00etara kirol postuak izanen dira plazan. Bien bitartean, 18:30ean Salomon Sense Ride zapatillak probatzeko zazpi kilometroko ibilaldia egingen dute. Ondotik, 19:15ean *El hombre que empezó a correr* dokumentala izanen da ikusgai, Leitzako Batzar Aretoan.

Nerea Zabaletaren lana saritu dute Mallorcan

Terapia Genetiko eta Zelularreko Sozietateak Nerea Zabaleta herritarra saritu du, Mallorcan egin den nazio mailako kongresuan. Haur eta nerabeengan eragiten duen gibleko gaixotasun arraro baten harira egin duen lana tarteko jaso du saria.



Nerea Zabaleta.

Hirigintza Planeko parte-hartze prozesua atzeratu dute

Herritarrei bilerak noiz izango diren ohikoak diren bideak erabiliz jakinaraziko zaie

TTIPI-TTAPA

Maiatzean egitekoak zituzten Hirigintza Planeko bilerak Udalaz gaindiko arrazoiengatik atzeratu dira. Ahal bezain azkar ekin nahi diote parte-hartze prozesuari. Ohikoak diren bideak erabiliz noiz izango diren jakinaraziko dute.

Hirigintza Plana berrituz hiru erronka nagusiri irtenbidea eman nahi diete. Batetik, landa, herria eta erreken arteko eremua berriz definitu nahi dute: baserri inguruak auzo bezala definitu nahi dituzte eta Udalak plazan duen lursailaren erabilera berrikusi nahi dute. Honako aukerak jarri dituzte mahai gainean:

1. Hiri-lurzoru gisara sailkatuak dauden lursailetan eraikitze-ko aukera. Herri-gunean eskuragarri dauden lursailak garatzeko, gutxieneko tamai-

na berrikustea eta etxebizitza kolektiboak egiteko aukerak ematea dute buruan, herriko eraikinen itxura errespetatuz. 2. Landa, herria eta erreken arteko zatian etxebizitzak egiteko aukerak berrikustea. 24.686 metro karratuko eremua da, lurzoru urbanizagarria eta 86 etxebizitza hartzeko gaitasuna duena. Astomela erreken ondoan dagoenez, uholde arriskua du.

3. Etxebizitzak erreken beste aldean egitea, uholde arriskua txikiagoa baita bertan. 4. Auzogune tradizionaletan, etxebizitzak eraiki ahal izateko urbanizatu ezin diren lursailak zeintzuk izan behar luketen berraztertzea.

Udalak, aukerak mahairatuz eta proposamenak entzunez, parte-hartze prozesua nabarmendu nahi izan du.



ALAITZ ESKUDERO BERGARA

Nazabal eskolakoak Arantzán izan dira

Nazabal eskolako ikasle eta irakasleak Arantzako Aterpean izan ziren maiatzaren 14an eta 15ean. Arantza ezagutzeaz gainera, San Juan Xar bisitatu zuten. Argazkiak islatzen duenez, begiralearen azalpenei adi egon ziren. Handienek zuhaitz parkean ibiltzeko aukera izan zuten.

Artikutzarako bidea zolaberrituko du Udalak

Diru-laguntza bidez, aurten asfaltatuko dute zabortegitik Arriurдинetarako bidea

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen Programak Goizuetatik Artikutzarako sarbi-dearen egokitzapena egiteko 50.000 euroko diru-laguntza eman dio Udalari. Obraren aurrekontua 110.941,10 eurokoa da eta proiektuaren idazketa-zuzendaritza 3.477,78 eurokoa. Diru-laguntza horren bidez, aurten zolaberrituko da zabortegitik Arriurдинetarako bidea.

Aldiz, Madalenako zubitik Olatxorako oinezko bidexka egiteko eta Tifanitxo eraikina barrenetik berritzeko diru-laguntzak ukatu egin ditu Gobernuak. Hala ere, errekurtsioa jarriz gero, zerbait lortzeko aukerak ikusten ditu eta bide hori hartuko du Udalak.

Beste aldetik, Iñaki Etxeberrria Aranaz hautatu du Udalak bake epaile lanerako. Astear-te eta ostegunetan egoten da udaletxean.



FELIX LOIARTE

Lehen jaunartzea egin dute herriko hiru neskek

Argazkian ageri diren Irati, Elaia eta Loreak lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 20an elizan. Egun bikaina pasa zuten.



FELIX LOIARTE

San Isidro eguna ospatu dute

Urteroko ohiturari eutsiz, maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, baserritarrek afaria egin zuten elkarrekin Oxeguardan, Nekazarien Eguna ospatzeko. Baserriko gorabeherak eta beste hainbat kontu izan zituzten hizpide mahaiaren bueltan.



FELIX LOIARTE

Umore Ona eta Iruña abesbatzak batera

Joan den urtean hiriburukoek Goizuetara egindako bisita bueltatuz, Iruñean kantari izan dira Iruña Abesbatza eta Umore Ona Abesbatza maiatzaren 12an. San Francisco eskolan eman zuten kontzertua eta gero Arrano elkartearen izan zuten bazkaria, giro bikainean.

Gizarte Zerbitzuak Jubiloteka jarriko du ekainetik uztaileira

TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ekainetik uztaileira bitarte jubiloteka zerbitzua martxan jarriko du. Jubilotekaren helburu nagusia adinekoen bizi aktiboa sustatzatzea eta ongizatean eragitea da.

Lau herrietan eskainiko dute zerbitzua, goizetan, 10:00etatik 13:00etara. Astelehenetan, Aresoko udaletxean; astartetan, Aranon, Maisuenean; asteazkenean Goizuetako jubilatuen elkartearen; eta ostegunetan Leitza, udaletxean, bilduko dira. Zerbitzua hasiera batean ekaina erdialdetik uztaileira bitarte eskaintzea aurreikusi badute ere, beste bizpauru hilabetez luzatzeko asmotan dabilta.

Izen-ematea zabalik da, ekainaren 11 bitarte; Gizarte Zerbitzuetara deituz (948 510840). Hileko 10 euro ordaindu beharko dira (lehen-dabizikoa doan).

Kultur elkarte bat sortu nahi dute Aranon

Aranon kultur elkarte bat sortzeko asmoz, herritar batzuk batu eta herriko bizitza kulturala sustatu eta elikatzeke lanean hasi dira. Elkartearen helburuak herritarren parte hartzea, euskara eta aisialdia sustatzeaz gain, herriak dituen beharrak zehaztu eta asetzea izango da. Oraindik lan asko dago egiteke. Elkartearen aurrerak ateratzen ari direnek herritarrei parte hartzeko deia egiten diete. Ekainaren 1ean, 20:00etan bilera irekia egingo dute Maisuenean. Ondoren afari merienda ere izango dute.

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

710

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket

Jose Ignacio Larrañaga Alberdi | BERA

Astizko lezeak - 2 sarrera

Javier Agirre Iriarte | SUNBILLA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Isabel Errandonea Goikoetxea | ARIZKUN

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Pili Ezkurdia Intxaurren | LEITZA

Buatxabal - Kamiseta bat

Josune Jaurena Agerrebere | URDAZUBI

La Rhune - 2 sarrera

Oihana Telletxea Garmendia | DONAMARIA

Erein - Liburu bat

Miren Josune Mitxeo Mariezkurrena | ARRAIOZ

Erein - Liburu bat

Deñe Abuin Arrasate | LESAKA

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://www.wowpark.fr>

LIBURUAK



• Espazioaren esplorazioaren historia

• Basoko liburu handia



TTARTALO
www.ttartalo.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.lanku.eus



www.irisarriland.eu



Maiatzaren 4an egin zuten Iruritako eskolako baratze hezitzailearen inaugurazioa. UTZITAKO ARGAZKIAK

Kalteak eragin dituzte Iruritako eskolako baratzean

Maiatzaren 4an egin zuten inaugurazio ekitaldia, baina herriko Salbatore bestetako aste hondarrean txikizioak egin zituzten

TTIPI-TTAPA

Iruritako eskolako baratze hezitzailea martxan paratu zuten maiatzaren 4an. Inaugurazio ekitaldia egin zuten ikasle, irakasle eta Baztango Udaleko teknikariek. Gure inguruan gaiak duen garrantzia ikusirik eta baratzen zuzeneko lanketa hezkuntza sisteman txertatzearen beharraz oharturik abiatu dute ekimena Iruritako eskolako ikasle eta irakasleek.

Eremua moldatu ondoren, hondakinak murriztuz berreskualdatzeko materialekin eginitako txorimalo edo mukuak

jarriak zituzten inaugurazio ekitaldirako. Mukuek hondakinak murrizpenaz, berrera-bilpenaz eta birziklapenaz aritzeko aukera eman zien.

Elikadura osasuntsua, garaiaren garaiko produktuen ekoizpena eta kontsumoa, lurraren lanketa, baratze lanabesak, ariketa fisikoa eta hondakinak kudeaketa bezalako gaiak lantzeko aukera ematen du baratzeak eta guzti hau gelatik kanpo, mugimenduan eta naturarekin harreman zuzenean. Zerghegia eska daiteke? Baztanek lurra lantzeko aukera aunitz

eskaintzen ditu eta haurretatik honen inguruko ohitura eta ezagutzak jasotzea garrantzitsua jo dute Iruritan.

Eskolan sorturiko hondakin organikoak eskola ondoko auzo konpostagunean tratatu ondoren bertako azken produktua, konposta, erabili dute baratza elikatzen. Inaugurazio ekitaldian konpost hori ikusi, bahetu eta lurrari gehituz, denen artean landaketarako prest utzi zuten baratzea.

Kalteak bestetan

Maiatzaren 12ko goizaldean, ordea, herriko bestetan, landareak errotik atereak, barazkiak zapalduak eta makilak hautsita agertu ziren. Horrez gain, eskolako patioako banku bat ere hautsita agertu zen. Hurrengo egunean eskolako zenbait ikasle baratzea moldatzera hurbildu ziren, beraien lana nola hondatu zuten ikusita minduak, baina lehengo-
ra bueltatzea lortu zuten.

Musika Eskolako akordeoi orkestak kontzertua

Baztango Musika Eskolako akordeoi orkestak kontzertua eskainiko du ekainaren 10ean, igandean 13:00etan Elizondoko Mariano Izeta erreboten plazan. Miguel Iparragirrenen zuzendaritzapean, Ane Oskoz eta Andoni Azkarraga ariko dira bakarlari.

Eugenio Llamosasen margo erakusketa Arizkunenean

Eugenio Llamosas margolariaren margo erakusketa irekiko dute Arizkunenea Kultur Etxean ekainaren 1etik 24ra. Sortzez Castro Urdialeskoa (Kantabria), Baztango Eskolako kide den Llamosas-en margolanak lehen ere ikusgai izan dira Arizkunenean.

Eskifaia Abesbatzak kontzertua emanen du Oronoz-Mugairin

Hondarribiako Eskifaia Abesbatzak kontzertua eskainiko du ekainaren 2an, larunbatean 20:00etan Oronoz-Mugairiko elizan. Elizondoko Abesbatzak antolatu du emanaldia, joan den urtetik ospatzen ari den 75. urteurrenko ekitaldien barrenean.

Txanbela Otxoteak Cincinnatin (AEB) kantatu du

Elizondoko Eduardo Zubikoa tenorea eta Abesbatza kantari aritzen den Pablo Azpeitia baritono iruñearra Txanbela Otxotea taldeko kide dira. Egunotan, 1873. urtetik honat egiten den Cincinatti May Festival Chorus jaialdian abestu dute, Estatu Batuetan.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesak
- Mugaz bertzeko aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Maitenako beilatokiaren berrinaugurazio ekitaldia.

Irachek Elizondoko beilatokiko ateak berriz ireki ditu

Bi solairu hartzen ditu instalazio berriak, 600 metro koadro, eta azken agurrerako aretoa ere egokitu dute

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Irache beilatokiak Elizondoko Maitena etxean duen eraikina osorik zaharberritu ondotik, maiatzaren 11n berriz ireki zituen ateak.

Iracheko akziodunek, Abraham Santos eta Guillermo Perez mankomunatuak, Lorena Sanchez zuzendariak, Juan Cruz Iriarte Baztango udal ordezkariak eta Iratxeko hornitzaile eta langileek inau-gurazioan parte hartu zuten.

Aurkezpena Guillermo Perez Azcona mankomunatuak eta Lorea Sanchez zuzendariak bideratu zuten. Irache beila-

tokiaren ibilbidea goraipatu eta azken 41 urteotan berri-kuntzen alde egin duten apus-tua nabarmentzearekin bate-ra, Irachek zaharberritze ho-netarako izan duen ilusioa azaleratu dute.

Beilatokiak bi solairu hartzen ditu Maitena etxean, 600 me-tro koadro baino gehiago. Araudiak eskatzen dituen bal-dintza guztiak betetzeaz gain, tanatopraxia-aretoa ere badu. Azken agurrerako areto bat egokitu eta erakusketa eremu bat ere antolatu dute, familiek behar dituzten produktuak aukeratu ditzaten.



ARANTXA GAMIO

Giro ederra Berroetako bestetan

Giro ederrean joan dira Berroetako bestak. Eguzkia eta euria izan dute; baita kirola, jatorduak, kantaldia, errealitate birtuala... eta bertze hainbat ekitaldi ere. Hemendik lehiaketetako irabazleak zoriondu nahi izan dituzte: paella egileak, bizikleta lasterketakoak eta muslariak, zehazki.



JOXELU RETEGI

Arraiozko mus txapelketako finalak

Afari jendetsu batekin akabera eman diote Arraiozko mus txapelketari. Beñardo Alunda eta Joxelu Retegi izan ziren txapeldun, finalean Kotoño Bengoetxea eta Xabier Beltxari irabazita. Jon Gamio eta Dani Saldias hirugarren izan ziren eta Txato Alunda eta M.A. Navarro laugarren.

BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas Hospitalarias
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA

Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:

- Antsietatea - Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak - Dementziak

Mendinueta z/g
31700 Elizondo
www.hospitalariasnavarra.org

Centro con plazas concertadas con
Gobierno de Navarra

**Zerbitzu berria
PSIKIATRIA
ETA PSIKOLOGIAKO
KONTSULTA ANBULATORIOAK
Tel. 948 452 162**



Harrera ona izan du Arizkungo jubilotekak eta Erratzun ere eskainiko dute.

Arizkungoa eta gero Jubilotokia irekiko dute Erratzun ere

Ekainaren 6an irekiko dute Lixutegian eta asteazkeneko bilduko dira 16:30etik 19:00etara

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Hilabete pasa da Harremana elkarteak Arizkungo jubiloteka zerbitzuko ateak ireki zituenetik. Astero, asteartetan, 16:30etik 19:00etara bitarte zortzi lagun biltzen dira, medikuaren etxean. Zenbait gaiez solastatuz hasten dute astearteko saioa. Ondotik, gimnasia ariketak, eskulanak eta jolasak egiten dituzte.

Arizkungo Jubilotokiaren harrera ikusirik, ekainaren 6an Erratzuko Lixutegia Etxean izanen dute irekiera. Lehendabiziko asteazkenean jubilotokiaren nondik norakoak

azaltzeko bilera egingen dute. Hilaren 6an joaterik ez duenak, astelehenean, ekainaren 4an, Elizondoko Arizkunenea etxe-ko Jubilotekan, 16:00etan izanen den saio informatibora joateko aukera ere izanen du.

Ekainaren 13an hasiko dira saioak. Asteazkeneko 16:30etik 19:00etara bilduko dira eta jubilotekara joan nahi dutenak etxean biltzeko aukera ere eskainiko dute. Izen-ematea Erratzuko osasun etxean, 948 453388 telefonora deituz edo Jubilotokiko arduradunarekin harremanetan jarritz (659 849570) egin daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gasnagintza ikastaro arrakastatsua

Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren bigarren urtea poliki-poliki bidea egiten ari da eta, maiatzaren 12an gasnagintza ikastaroa egin zuten Elizondon. Autxitxiako Ramon Agirre gasnagilea irakasle lanetan aritu zen. Hurrengo hitzordua garagardo ekologikoa egiteko ikastaroa izanen da.



NEREA MORTALENA

Margo ikastaroko ikasleen erakusketa

Margo ikastaroan aritu diren pertsonen marrazkiak izan dira ikusgai Arizkunenean. Iciar Mikelperizena irakasle lanetan aritu da. Kurtsoan bai helduak baita jubilatutak ere parte hartu dute. Hurrengo ikasturtean ere ikastaroa egingen da eta nahi dutenek izena emateko aukera izanen dute.

**TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN**

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

OSASUN ASEGURUAK

Itxaron zerrendarik gabe,
zuk erabakitzen duzunean

- Klinika hoberenak (Unibersitaria, Quirón, Poliklinika,...)
- Espezialitate guztiak, txekoak, hospitalizazioa, etb... barne
- Autonomoak %100 desgrabazioa IRPFen

ESKAINITZA BEREZIA

2018/12/31 arte

%25^{eko} deskontua

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generalis.es





Joseba Otondo alkatea eta Garabideko Maialen Sobrino, hitzarmena berritzen.

Hitzarmena berritu dute Udalak eta Garabide elkarteak

Hizkuntza lankidetzak proiektuak babesteko 2016ko ekainaren 2an sinatutakoari segida emanen diote bertze lau urtez

TTIPI-TTAPA

Hizkuntza lankidetzak proiektuak babesteko hitzarmena berritu dute Baztango Udalak eta Garabide elkarteak. Akordio honen iraunaldia lau urtekoa izanen da eta, beraz, 2022ra arte emanen zaie segida Udalak 2016tik babesten dituen hizkuntza lankidetzak proiektuei. Herrien garapenaren erdigunean hizkuntza jartzea helburu izanen dute ekimenek eta estrategia orokor horren zehaztapena Ekuadorren mamituko da aurtengoan, Imbabura probintzian sortu berri den SISARIY erakundearekin ari baitira Garabidetik kitxua hizkuntzaren indartzeko elkarlanean.

2016ko ekainaren 2an sinatu zuten lehendabiziko aldiz hizkuntza biziberritze prozesuak bultzatzeko bi urterako hitzarmena Udalak eta Garabide. Akordio horri esker, Bidaide programaren baitan, kurdien delegazio bat izan zen Euskal Herrian astebetez euskararen biziberritze esperientziaren inguruko formazioa jaso eta euskalgintzako hainbat erakunde bisitatzeko.

Baina Garabide elkartearen helburua irakastea bakarrik ez, ikastea ere badenez, gere kurdien egoeraren eta abian zituzten hizkuntza biziberritze esperientzien inguruko formazioa jaso zuten eta adierazi dutenez, «arras pozgarria izan zen jakitea, adibidez, 250 gazte zituztela hamalau freedom school-etan (kurdieraz irakasten duten eskolak) ikasle». Ordezkaritza kurduaren bisitako azken egunean, esperientziaren inguruko ondorio bateratuak ateratzeko saio bat ere egin zuten guztien artean.

2017an, Balleko Etxeak eman-dako babesari esker Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoari buruzko bideo laburpen eta grabazioak egin zituzten. Horrez gain, Ikastaldi Trinkoaren baitan bisita egin zuten Baztanera eta Joseba Otondo alkateak egin zien harrera.

Baztandarrek inereharreman zuzena izan du urteotan Garabidek. Izan ere, 2016 bukaeratik aurrera Aditu Ikastaroko partaideek Arizkunenea Kultur Etxean mahai-ingurua eskaini zuten bertso saio baten aitzinetik. Ekuadorreko kitxua, Mexikoko nahuatl eta yukatango maia eta Guatemalako kaqchikel hizkuntzen ordezkariak aritu ziren han bildutako 40 bat baztandarrek hizkuntzari buruzko egoera eta gogoeten elkartrukean, Karine Etxeberri gidatuta. Ondotik, Alazne Untxalo eta Xabi Maia bertsolariak aritu ziren kantuan arratsa borobiltzeko.

2017an, Balleko Etxeak eman-dako babesari esker Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoari buruzko bideo laburpen eta grabazioak egin zituzten. Horrez gain, Ikastaldi Trinkoaren baitan bisita egin zuten Baztanera eta Joseba Otondo alkateak egin zien harrera.

Baztandarrek inereharreman zuzena izan du urteotan Garabidek. Izan ere, 2016 bukaeratik aurrera Aditu Ikastaroko partaideek Arizkunenea Kultur Etxean mahai-ingurua eskaini zuten bertso saio baten aitzinetik. Ekuadorreko kitxua, Mexikoko nahuatl eta yukatango maia eta Guatemalako kaqchikel hizkuntzen ordezkariak aritu ziren han bildutako 40 bat baztandarrek hizkuntzari buruzko egoera eta gogoeten elkartrukean, Karine Etxeberri gidatuta. Ondotik, Alazne Untxalo eta Xabi Maia bertsolariak aritu ziren kantuan arratsa borobiltzeko.



Agustin Otondo Dufurrena.

Txileko Nafar Etxea sortu zuen Agustin Otondo zendu da

TTIPI-TTAPA ERRATZU

84 urterekin, joan den maiatzaren 19an hil zen Agustin Otondo Dufurrena. 1934an Erratzun sortua, 1949an, 15 urte baino ez zituela joan zen Txilera. Bera izan zen Txileko Nafar Etxea sortu zuena, baita bertako lehendabiziko lehendakaria ere.

Lan haundia egin zuen bere familiaren jatorria ikertzen, eta horrez gainera, bere zuhaitz genealogikoa ere osatu zuen. Txileko bertze familia garrantzitsu batzuen inguruko ikerketak ere egin zituen eta Txileko Ikerketa Genealogikoen Institutuko ohorezko kide izendatu zuten. Nafarroatik Txilera joandakoekin ere ikerketak egin zituen, baita hainbat liburu argitaratu ere.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com



XUBAN EUGI GOÑI-ren eskutik

Denak derberdinak garelako, mota guztietako lesioen aurrean, tratamendu pertsonalizatuak

622 25 77 11 | eskuz.fisio@gmail.com
Abartan karrika 23 ELIZONDO

Maldaerreka **IRACHE** tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA: 948 63 74 04 | www.tanatoriosirache.es



Azken 30 urteotan hileta-zerbitzuetako berrikuntzen sustatzaile izan gara. Eskualdeko biztanleei lana emanez eta, bereziki, herritarrei beraien senideak agurtzeko kalitateko instalazioak eskainiz.



Elizondoko Maitena Etxeak berriz ireki ditu ateak

Elizondoko Maitena Etxean 2001az geroztik dugun egoitza osorik zaharberritu eta **puntako teknologiaz** hornitu dugu.

Zaharberritze lanen ondotik, Maitena Etxeko instalazioak **Nafarroako gainerako ehorztetxeen eredugarri bilakatu dira.**



Kalitateko zerbitzu integrala

Hileta-zerbitzuetan daramatzagun 41 urteotan, **familiak aditu** hoberenen esku jartzea izan da gure lehentasuna.

Gure hazkundearen eta zerbitzuaren bikaintasunaren iturri diren adituei esker, **kalitateko zerbitzu integrala** eskaintzen dugu.



Erosotasuna eta teknologia, eskutik eskura

Beilatokiak lege-eskakizun guztiak betetzen dituen **600 m² baino gehiagoko** bi solairu ditu; tartean, **tanatopraxia gela** eta **eskualdeko herritarren beharrak asetzeko biltegia**. Egiturari dagokionez, oinarrizko elementuak mantenduz, bi gela handi eta argitsu egin ditugu. Egurraren epeltasuna eta bertzelako eraikuntza-materialak baliatzearekin bat, puntako teknologia txertatu dugu.



“

*Azken agurra
gure agur-gela
edota lorategian
egiteko aukera
eskaintzen dizuegu*

”




Zuk erran, guk egin

Gure zerbitzuak zuen beharretara egokituak dira eta tanatorioetan ez ezik, etxeetan ere egiten ditugu.

*Momentu berezi horietan
hilkutxa aukeratzen,
egunkarietarako **eskelak** eta
Ttipi-Ttapa aldizkarian
oroigarriak jartzen,
loreak eskatzen...
lagunduko dizuegu.*

*Are gehiago, azken agurra
irudikatzen duzuen bezalakoa
izan dadin, gure agur-gela
edota lorategian egiteko aukera
eskaintzen dizuegu.
Zentzu horretan ere,
bide-urratzaile gara.*



Kapera besta egin dute Dantxarinean Pentekoste egunez

Mirentxu Ainziart saratarrak 1.500 euroko saria jaso zuen maiatzaren 21ean ospatu zen zazpigarren edizioan

IÑIGO IMAZ

Agus Bentako parkinean ospatu zen Kapera Eguna maiatzaren 21ean, Dantxarineko merkatariek berreskuraturiko besta historikoa, Pentekoste egunez. Egun honetan, mugaz bi aldetako jendeak elkartzeko parada izan ohi zuen frankismo garaian: erbesteratuak, emigratu ekonomikoak, senideak, lagunak, eta finean, mugaren trabak xamurtzen zirela aprobeztatu nahi zuten guztiek egun handi hura zuten urtero.

Demokraziaren etorrerak, eta mugarteko harremanak galtzen joan zirelarik, bestak bere indarra galdu zuen eta desagertu zen azkenik. Baina, orain zazpi urte, Dantxarineko Merkatariek Elkartea eta Udalak, besta historikoa berreskuratzeko erabaki zuten eta urtetik urtera indarra hartzen ari da.

Besta horretan, gainera, merkatariek beren bezeroen artean zozketatzen den 1.500 euroko txekoa banatzeko ba-

liatzen dute. Aurtengo sariketa, Mirentxu Ainziart saratarrak irabazi zuen, Benta Pakon betetako boletoa irten baitzen zozketan. Hori dela eta, Mirentxuk eta bere semeak Benta Agusetik abiatuta bertze hamaika gune komertzialetan ibili ziren auto kabriolet batean, txekiekin hurrengo hilabeteetan erosi ahal dituzten gauza guztiak ikuskatzeko.

Egitarau zabala

Besta astelehen goizeko hamarretan hasi zen. Aurretik, dantzariak kale egin dute azken momentuan, baina bertaratutako zirenek inprobisatutako dantzaldiak bete zuten hutsunea. Jarraian, herri kirolen tarteak izan ziren, Patxi eta Donato Larretxeak antolatutako bitartean, txikiendako puzgarriak eta jokoak antolatu ziren.

Bestak 13:00 arte iraun zuten, eta txoznan sagardoa eta bertzelako edariak edan eta txistorra eta txorizoa dastatu ahal izan zituzten bertaratutakoek dohainik.



Giro polita sortu zen Dantxarinean kapera bestan. IÑIGO IMAZ



IÑIGO IMAZ

Plan Orokorra aldatzeko parte-hartzea

Alkerdi eta Ikaburuko parajeak babestu eta harrobiak galeratzeko asmoz, Udalak abian jarri du herriko Plan Orokorra aldatzeko parte-hartze prozesua. Maria Urmenetaren eskutik, Kultur Etxera hurbildu ziren herritarrek prozesuaren gaineko azalpenen berri izan zuten.

Maidar Jorajuria saratarrak irabazi zuen Salvatore bestetako Ahate Jokoa

IÑIGO IMAZ

Bigarren urtez antolatu dute Rakel Garnika eta Juan Luis Olhagarai Ahate Jokoa herriko bestetan. Oraingoan bai, jende aunitz bildu zen berreskuratua izan den ekitaldiaz gozatzeko.

Eguraldi txarrak ez zuen lagundu, baina bortz zaldunak Olhagarai kapitainaren gida-

ritzapean aritu ziren bederrtiz ahateak ehizatzen.

Besta 1980 urtean desagertu zen. Garai hartan, herriko gazte aunitz biltzen ziren bizirik zegoen ahateari burua kentzeko. Gaur egun, haatik, ahatea hilik zintzilikatzen dute eta animalioak gazteen afarirako sakrifikatzen dituzte. Hala ere, besta honetan parte har-



Maidar Jorajuria. XAGU-LESAKA

tu zuten gehienak Lapurditik hurbildu ziren. Rakel Garnika eta Juan Luis Olhagarai herritarrekin batera, Sarako Jean Pierre Libier, Maidar Jorajuria eta Johana Iribarren, eta Amotzeko Mathieu Bessonart lehiaitu ziren. Azkenik, Jorajuria izan zen garailea, Zegar ize-neko zaldiaren gainean.

Ahate Jokoa gain, hainbertze ekitaldi izan ziren Salvatore bestetan. Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, baina giro ederra izan zuten.

Gastibeltza Filmak enpresak Larraldean egin du bere egoitza

Eskuarazko filmak ekoizteko eta banatzeko asmoa dute helburu, Senperetik ahal bezain urrunerat

PIERRE BASTRES

Bertze elkarte ainitzez gainerat, oraindik goiti enpresa bat gerizatuko du Larraldeak: Gastibeltza Filmak. Manex Fuchs sortzaileetako batek aipatzen du hautu hau: «Lehenik erran behar dut Senperen baduzuela Andoni Iturrioz (Larraldeko nagusia), izigarri esku zabaleko pertsona dena. Hemen izaiteko parada eman dauku, eskerrak hari. Lehenagotik elgar ezagutzen genuen, Eguzki Lore antzerkia elgar lanean egina genuen, bertzeak bertze».

Enpresako kideak eta xedeak aurkezteko huna zer duen erraten Manexek: «bortz kide gara: Katti Pochelu, Hazparneko Zinamaldia eramaileetako bat dena, Eñaut Castagnet filma egilea, Jose Martinez ikerlari eta dokumentalista,

Ximun ene anaia film egile eta antzerki-gidari, eta nihau aktore eta antzerki zuzendaria. Zertarako sortu dugun enpresa hau? Eskas bat tapatzeko asmoz erran nezake, banaketan eta ekoizpenean. Ekoizpena ez da bakarrik film baten diruztatzea, baizik eta film baten egiteko baldintza guziak sortzea. Geroz eta mugimendu gehiago badela ageri da eskual-zinema munduan: egile gehiago, galdera gehiago eta goiti doan sorkuntza. Eta kanpoko baldintzak edo testu inguruak ere gure alde doazi: hala nola, Euskal Elkargoaren sortzea. Ez gara lehenak Iparraldean merkatu huntan, jadaneko bertze hiru edo lau enpresa ari dira sail berean. Baina denendako tokia bada. Eskuarazko filmak eskualdun guztien eskuetarat ekartzea



Gastibeltza Filmak enpresako kideak, Larraldea aitzinean. ISABELLE MIQUELESTORENA

dugu egitasmua, Getxotik Zarraitzurat. Hasi orduko onart dezakegun baino lan gehiago daukagu, horrek frogatzen du hemengo zinemagintza azkarrarean dela». Lau xedetan lan egiten dute: «lehen *Non* filma banaketa. Eñaut eta Ximunek egin duten lana, eta jadaneko 50 gela baino gehiagotan erakutsi dute. Eskual Herriz kanpo nahi genuke banatu orain. Bigarrena *Lezo* Jose Martinezen dokumentala ekoiztea eta banatzea. *Lezo* itsasgizon bat zen, arma frango kontrabandian pasatua zituen Mundu Gerlako garaian, bere bizia arrisku izigarrian emanez. Hirugarrena film luzea dugu, *Gure Oroitzapenak*, 12 film

laburrez osatua. Denak Sarriñadiaren olerkieri lotuak dira. Guhauk bi egin ditugu. Gure xedea da Iparraldean zein Frantzian ere banatzea. Azkenekoa Thoma Lacosten *L'Hypothèse Démocratique* deitzen da, eskual gatazkaz. Banaketa zein ekoizpenaz jabetuko gara. 2019an argitaratuko dugu ontsalaz».

Azkenekoz normalizazioa dute helburuetako bat, «egun batez eskuarazko filmak bertze mintzairazkoak balira bezala izatea. Guk eskuarazko film bat urtean ikusten badugumiresgarria atzematen dugu, gure haurrek 20 edo 30 ikustea nahi dugularik!», dio Manex Fuchsek.

Herri Urrats euripean baina giro onean iragan da, 'Prefosta' lemapean

PIERRE BASTRES

Aurtengo Herri Urratseko lema *Prefosta* zen, eta irabaziak Lartzabaleko kolegioa laguntzeko baliatuko dituzte. Ondikoz aroa ez zen lagun eta gan den urtean baino jende gutiago sumatu dute antolatzailleek, batez ere hegoaldeko eta familien artean. Baina hala ere jenderik ez zen eskas aintzirako zazpi xokoetan. Badu hirur urte Emile Negelua bulegoan ari dela Christophe Jauregi bertze senpertar batekin batera, edari eta janari batzordean, hain zuzen. Haren

iduriko «zenbaki zehatzik ez diagu oraino, baina ene ustez, ageri duk ez dela izan 2017koa bezain jendetsua. Hotza eta euria ez hituan gure alde. Haatik ahal bezain ongi iragan zaiguk, giro izigarri onean. Beti ere berrikuntza zonbeit sortzen entseatzen gaituk. Gan den urtean xoko herrikoiak arrakasta ederra izan zuelakoz, aurtan ere zutik ezarri diagu eta ez gaituk damutzen. Haurren txokoan berrikuntza polita ikusi diat, Philippe Albor, Amaia Riouspeyrous eta Maider Iziagak kantaldi eder bat



Jende guttiago baina giro ona izan zen Herri Urratsen. EMILE NEGUELOUA

eman ditek. *Nafarroa* xokoan Inspecteur Cluzo genuen, Landeetako laborari-rockegile. Eta nola ez aipa Foisis Jaunak, Foisis Itoiz taldeko musikari ohia zuan, iduritzen

zitzautaan Itoiz ari zela oholen gainean!».

Bertzalde, askariko txokoa jendeek aunitz preziatu zutela erran zuen: «oihal-etxea! mukurru betea genian».

Bertsolari gaztetxoen finala herrian jokatu da

Ekainaren 9an egingen dute Euskal Herriko Eskolarteko Bat-bateko Txapelketaren finala

TTIPI-TTAPA

Heldu den ereiarioaren 9an, larunbata, Euskal Herriko Eskolarteko Bat-bateko Txapelketaren finala jokatu da trinketean. 30. edizioa izanen da aurtengoa eta finalera sailkatzea lortu duten 13 bertsolari gaztetxo ariko dira kantari: Hodei Renteria eta Irati Alcantarilla (Lapurdi), Xabat Illarregi eta Ekhine Zapiain (Nafarroa), Aitor Ugarte eta Aroa Arrizubieta (Araba), Elxabet Etxandi eta Julen Etxeberri (Baxenabarre), Gorka Pagonabarraga eta Iruri Altze-

rreka (Bizkaia), Oihana Arana eta Aner Peritz (Gipuzkoa) eta Haritz Capot (Zuberoa).

Finala 11:00etan hasiko da eta 14:00etan, bazkaria egingen dute Lur Berri gelan. Txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratzen ahal dira. Bazkal ondotik emanaldia izanen da.

Lehen zatian, 13 bertsolariak ariko dira eta bigarrenean, puntuaziorik altuena lortzen duten sei lagunek kantatuko dute. Mikel Mendizabal Ikastolen Elkartean bertsolaritza sustatzen aritzen denak jantziko dio txapela irabazleari.

Zazpiak Bat taldearen ikusgarriarekin hasiko dira aste hondarreko ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Ortzirale honetan, ereiarioak 1, Zazpiak Bat taldeko dantzariak ikusgarria eskainiko dute, 19:00etan Omordian. Eskubaloia maite dutenek, berriz, larunbatean dute hitzordua, Urtxintxak elkarteak norgehiagoka antolatu baitu kiroldegian. Parte hartu nahi duenak 06 31 21 57 92ra deitu beharko du. Jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute. Egun berean, Beti Gazte Elkartekoak Pikasarrria jatetxean bilduko dira eta biharamunean, ereiarioak 3, Xareta Eguna izaki, egun osoan ekitaldiak izanen dira.

Hilaren 7an, Lokarri abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan, 21:00etan, eta biharamunean, Axuriara mendi ateraldia antolatu dute. Lezeetatik 09:00etan abiatuko dira.



Ortziraletan merkatua izaten da.

Ereiarioaren 9an, Eskolarteko Bat-bateko Txapelketaren finala jokatu da trinketean eta hilaren 10ean, mendi bizikleta proba antolatu du Olhain Ikastolak. Bi ibilbide izanen dira aukeran, 25 eta 35 kilometrotakoak. Izena egun berean eman beharko da, 07:30etik goiti plazan. Proba 08:30ean hasiko da.

Aipatzekoa da, ortziraletan, 16:30etik goiti ekoizleen azoka izaten dela frontoian.

Egun osoko besta igande honetan iraganen den Xareta Egunean

TTIPI-TTAPA

Duela lau urte bezala, aurten ere Saran ospatuko da Xareta Eguna. Igande honetan, ekainak 3, egin dute hitzordua.

08:00etan abiatuta, itzulia egingen dute Suhalmendira. 10:30ean meza izanen da eta Zugarramurdiko abesbatzak

kantatuko du. 11:30ean bote-luzean pilota partidak jokatu-ko dituzte. 12:30ean aperitifa eskainiko dute plazan eta 13:30ean kantu bazkaria Keinu Tabernarekin.

16:00etan bisita egingen dute elizara eta 17:00etan Pottoka Eskolakoen tartea izanen da.



PANTXIKA PATERNE

Ikastolen aldeko danbor soinua Baionan

Seaskak deituta eta *Kasu! Ikastolak kexu!* lelopean, ehunka lagun elkartu ziren maiatzaren 4an Baionan, irakasle gehiago ez jartzeko Hezkuntza Ministerioak hartutako erabakia gaitzesteko. Tartean, Olhain ikastolako ikasle, irakasle eta burasok danborrak ederki astindu zituzten.



PANTXIKA PATERNE

320 lagun ikastolaren bestan

Ikastolaren 40. urteurrena gogoan, aurtengo besta berezia izan da. Jende andana bildu zen maiatzaren 20an kiroldegian egindako hitzorduan: 210 heldu eta 110 haur. Kalejira, kantaldia, txotx irekitzea, bazkaria, haurrendako jokoak eta puzgarriak, kontzertua... Giro ederra sortu zen egun osoan.



Ibilbide luzeko podium osoa, Larralde eta Pelaez txapeldunekin. FELIX LOIARTE

Joseba Larralde eta Vanessa Pelaez nagusi Goizutrailen

25 kilometroko ibilbidean irabazi zuten Berakoak eta Andoaingoak; laburrean, Ander De Luis eta Onintza Mitxelena

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Maiatzaren 19an izan zen Goizutrail mendi lasterketaren bosgarren edizioa. Bi ibilbide izan zituzten aukeran, 25 kilometrokoa eta 10 kilometrokoa. Denera 223 korrikalarik bukatu zituzten lasterketak, 107k luzeena eta 116k laburrena. Luzeena egiten bizkorrak Joseba Larralde beratarra eta Vanessa Pelaez andoaindarra izan ziren eta laburrena egiten Soralluzeko Ander de Luis eta Oiartzungo Onintza Mitxelena.

Joseba Larralde bi ordu, 14 minutu eta 38 segundo behar izan zituen lasterketa luzea burutzeko. Podiuma osatu zuten bertze bi korrikalariak, Oiartzungo Gorka Herce eta Zestoako Jon Alberdi batera helmugaratu ziren (02:16:19). Manttaleko Unai Santamaria hernaniarra laugarren izan zen (02:17:57) eta Asier Apeztexea Arantzako taldekidea seigarren (02:20:55). Hodei Lujanbio goizuetarra hama-seigarren izan zen (02:32:41). Emakumezkoetan, Andoain-

go Vanessa Pelaezek bi ordu, 37 minutu eta zazpi segundo behar izan zituen garaipena lortzeko (20. izan zen sailkapen orokorrean), Getxoko Amaia Amantegi bigarren izan zen (02:43:54) eta Izaskun Zubizarreta donostiarra hirugarren (02:45:40).

Ibilbide laburrean, Soralluzeko Ander De Luisek 50 minutu eta 37 segundo behar izan zituen irabazteko, bigarren izan zen Mikel Olaizola azpeitiarrak 51 minutu eta 24 segundo eta hirugarren izan zen Nacho Lopez hondarribiarrak 53 minutu eta 18 segundo. Eskualdeko korrikalariei dagokienez, Irurritako Miguel Angel Iñarrea bosgarren izan zen (55:20), Xabier Apeztexea goizuetarra hamaikagarren (57:43) eta Juan Mari Indakoe-
txea lesakarra hemezortzigarren (01:01:04).

Emakumezkoetan, Oiartzungo Onintza Mitxelena nagusitu zen (01:04:48), Urnietako Ainhoa Jauregi bigarren izan zen (01:06:40) eta Oiartzungo Olatz Mitxelena, irabazlearen ahizpa, hirugarren izan zen (01:06:43). Maialen Apeztexea goizuetarra bederatzigarren izan zen (01:12:28), Itziar Etxeberria elizondarra hamargarren (01:13:27), Oihana Mindegia aurtiztarra hamalaugarren (01:19:51), Ane Zinkunegi goizuetarra hogeigarren (01:25:46) eta Elizondoko Arantxa Goñi hogeita bosgarren (01:32:50).



V. GOIZUTRIL

IBILBIDE LUZEA (25 KM)

1. Joseba Larralde (Bera)	2:14:38
6. Asier Apeztexea (Arantz)	2:20:55
16. Hodei Lujanbio (Goizueta)	2:32:41
23. Eneko Andueza (Leitza)	2:40:46
24. Haritz Aranzegi (Leitza)	2:41:51
33. Gorka Urtasun (Irurita)	2:47:39
36. Iñaki Zabaleta (Leitza)	2:53:02
38. Endika Eugi (Elizondo)	2:53:58
45. Unai Elizagoien (Bera)	2:57:52
57. Adur Bernaola (Leitza)	3:04:37
63. Angeltxo Aranibar (Bera)	3:10:40
75. Mikel Saenz (Leitza)	3:18:48
76. Alex Salaberria (Goizueta)	3:19:14
85. Xabier Portu (Lesaka)	3:27:50
89. Txoma Barriola (Leitza)	3:29:50
90. Zigor Sagardui (Goizueta)	3:29:55
91. J. Sagastibeltza (Leitza)	3:29:58

IBILBIDE LABURRA (10 KM.)

5. Migel Angel Iñarrea (Irurita)	55:20
11. Xabier Apeztexea (Goizueta)	57:43
18. J.M. Indakoe- txea (Lesaka)	1:01:04
24. Josu Sarobe (Arano)	1:02:34
49. JoseM ^a Lujanbio (Goizueta)	1:08:51
51. Mikel Azpiroz (Leitza)	1:09:04
52. Jon Santsiñena (Etxalar)	1:09:15
71. Maialen Apeztexea (Goizueta)	1:12:28
72. Aritz Zubiri (Goizueta)	1:12:28
76. Itziar Etxeberria (Elizondo)	1:13:27
78. Andoni Larralde (Goizueta)	1:15:00
87. Gari Etxegarai (Leitza)	1:16:48
99. Oihana Mindegia (Aurtitz)	1:19:51
109. Ane Zinkunegi (Goizueta)	1:25:46
116. Arantxa Goñi (Elizondo)	1:32:50

Walter Becerra eta Lurdes Oiartzabal garaile Urdazubiko Kontrabandistan

IÑIGO IMAZ URDAZUBI

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketaren zortzigarren edizioa jokatu zen maiatzaren 20an, 15,8 kilometro luzeko eta 656 metroko gainbehera zuen ibilbidearekin. 64 korrikalarik parte hartu zuten eta Walter Becerra eta Lurdes Oiartzabal suertatu ziren txapeldun.

Gizonezkoen artean, Sestaon (Bizkaia) bizi den Walter Becerra venezuelarra izan zen garaile, ordubete, sei minutu eta 30 segundoko denborarekin; Unai Cobos de Juan gipuzkoarra izan zen bigarren (01:09:09) eta Arraiozko Iñaki Mihura izan da hirugarren (01:09:10).



Korrikalariak lanean. XAGU-LESACA

Emakumezkoen arean, hiru lehenbiziko sailkatuak gipuzkoarrak izan ziren: lehenbizikoa Lezoko Lurdes Oiartzabal (01:21:00), bigarren Irungo Alizia Olazabal (01:24:03), eta hirugarren Azpeitiko Maite Etxezarreta (01:24:55). Urdazubiarren artean, sailkapena hola geratu zen: lehenbizikoa Aitor Rementegia izan zen (01:30:50); bigarren Mikel Cenoz (01:41:20); eta hirugarren Clemente Suhas (01:46:00).

«Indarragatik, frontoi laburrean hobe moldatzen naiz»

ELOY GARCIA OTXANDORENA ERREMONTELARIA

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Ez du erraz atenduko Eloy Garcia Otxandorena doneztebarrak 2018ko maiatzaren 19a. Hemeretzi urterekin (20 eginen ditu uztailearen 18an), erremontelari profesional moduan debuta egin zuen Hernaniko Galarretan. Estreineko partida horretan, Zalduarekin bikote eginez, 35-29 irabazi zien Goikoetxea V.a eta Arruarteri. Azken honek ere debuta zuen.

Partida parekatua eskaini zuten eta lauen artean, Eloy Garcia bera izan zen protagonista. Izan ere, 21 tanto egin zituen eta pilota bakarria galdu zuen. Ez dira nolanahiko zenbakiak, batez ere lehen partida zuela kontuan hartuz. Oraindik indarra falta du, baina adituek diotenez, pilotari pilotaria da eta gutti galtzen du.

Espero zenuen hain gazte izanik profesionaletan debutatzea?

Horretarako jokatu eta entrenatzen nuen, noizbait debuta ahal izateko, baina ez dut indar handirik eta ez diot erremontelari eragiten bertze batzuk bezala. Ilusioz eta urduritasunez hartu nuen.

Nola hasi zinen erremontean?

Ttikitan eskuz aritzen nintzen, baina azkenean arazoak nituen, eskutako mina... Erremontean ez da horrelakorik. Doneztebeko erremonte eskolan hasi nintzen, 14-15 urterekin eta gustatu egin zitzaidan. Gero, Euskal Jai Fundazioan entrenatu nuen. Berriz bueltatzean Donezteben Julen San Miguelek eta orain berriz ere Fundazioan aunitz ikasi dut. Fundazioko eta Iruñeko Alde Zaharreko erremonte torneoak jokatu ditut afizionatutan eta bietan, promozio mailan tx-



Eloy Garcia pilota astintzen, debutaren egunean. MAIALEN ANDRES

«NIRE MAILA HOBETU ETA NORA IRISTEN NAIZEN IKUSI NAHI DUT»

peldun suertatu naiz, Azpirozekin bikote eginez.

Zein dira zure ezaugarriak?

Indar handirik ez dudanez, frontoi laburrean hobe moldatzen naiz, hor norbera eta

pilota ongi kokatzea da garrantzitsua. Indarrean eta erresistentzian hobetu behar dut, partidak ongi akitzeko. Zein helburu jartzen dizkiozu zure buruari?

Ongi jokatzeko eta lotsagarri ez gelditzea. Nire maila hobetu nahi dut eta ikusi nora ailegatzeko ahal naizen.

Erremontelarik gogokoena?

Aritz Juanenea saldiastarra laguna dut eta gustatzen zait nola aritzen den.

28. Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak jokatu dituzte Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka elkarteak hogeita zortzigarren urtez antolatutako Josetxo Ezkurra Memorialeko finalak jokatu zituzten maiatzaren 19an, Ezkurra pilotalekuan. Sei kategoriatako finalak izan ziren. Iosu Eskirozek afizionatutako azken txapela jantzi zuen, profesionaletan debutatu baitu.

Benjaminak: Jokin Artetxe (Ilunpe), 18 – Xanet Apezetxea (Umore Ona), 10.

Alebinak: Aratz Otaegi (Txapagain), 18 – Oier Ibarluzea (Urretxu), 11.

Infantilak: Julen Orbegozo (Añorga), 18 – Unai Amiano (Añorga), 9.

Kadeteak: Aingeru de la Fuente (Esteribar), 18 – Jorge Fernandez (Fuenmayor), 8.

Jubenilak: Oroitz Sein (Oiarpe), 13 – Sergio Gutierrez (Cuco), 18.

Seniorrak: Enaitz Anso (Zugarralde), 14 – Iosu Eskiroz (Zugarralde), 18.

Sari banaketan, Juana Zuzarren eta Koteto Ezkurra, Josetxo Ezkurra zenaren alarguna eta semea izan ziren. Errekako pilotarien arteko



Beti Gazteko mutilen taldea da gaur egungo txapelduna. JM TELLETXEA

finalak ere jokatu zituzten bezperan. Mailaz maila, Enaitz Elizalde (aurrebenjamin B), Jokin Mariezkurrena (aurrebenjamin A), Mattin Zelaieta (3. benjaminak), Iker Anzizar (2. benjaminak), Jose Luis Ji-

menez (1. benjaminak), Mikel Telletxea (3. alebinak), Mattin Agesta (alebinak), Mikel Izagirre (2. infantilak), Xuban Ilarregi (infantilak) eta Patxi Loiarte (kadeteak) suertatu ziren txapeldun.



Aurrera eta Gure Txokoa areto-futbol taldeak Leitizan. PABLO FEO



Gure Txokoako futbol talde nagusia Preferentera igo da. UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Txokoa eta Aurrerako areto-futbol taldeak goiti

Gipuzkoako bigarren mailako ligan lehenbizikoa eta bigarren izan ondotik, play-offeko partida ere irabazi zuten eta larunbat honetan elkarren kontra aritzekoak ziren txapelduna erabakitzeko

TTIPI-TTAPA

Gipuzkoako bigarren mailako areto-futbol txapelketako hasierako ligaxkan lehenbizikoa eta bigarrena izan ziren Berako Gure Txokoa eta Leitzako Aurrera taldeak. Horrek, lehen mailarako igoera *play-off* partida etxean jokatzeko eskubidea eman zien eta ez zuten hutsik egin. Gure Txokoak bina

berdindu zuen Orixeko Tolosaldearen kontra, baina penaltietan nagusitu ziren beratarak. Aurrera errazago nagusitu zen (7-3) Gaintxuren kontrako lehian. Hortaz, bi taldeek lortu dute lehen mailara igoetzea. Denboraldiaren ginda larunbat honetan jartzekoa zuten Tolosan. Izan ere, Gure Txokoa eta Aurrera-

ren arteko finala jokatu behar zuten, ligako txapelduna zein den erabakitzeko.

Futbol handian ere goiti

Futboletik balentria handia egin badute, Gure Txokoako futbol talde nagusiak ere mailaz igoetzea lortu du asteburu berean. Preferentera igoetzeko fasean, azken partidaren esku-

ratu zuen igoera hori, ederki sufriruta. Izan ere, azken partida horretara laugarren postuan ailegatu ziren sailkapenean eta hiru lehenbizikoa igozten ziren. Matzadan bisi-tari, Azkoitiko Anaitasuna, sailkapenean hirugarren, puntu bat gehiagorekin zegoen taldea. Beraz, kontuak garbi zeuden: beratarrek garaipena behar zuten igoera lortzeko eta azkoitiarrek berdinketa-ekin aski zuten. Gure Txokoak ez zuen denboraldiko partidarik onena egin, eta partida bukatzeko bortsu minutu falta zirela bana zeuden. Baina azken orduan sartutako golarekin, garaipena eta igoera lortu zuen Berako taldeak.

Beti Gazteko neskak eta mutilak eta Basaburuako kadeteak txapeldun

TTIPI-TTAPA

Ez zen ezustekorik izan Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako laugarren eta hondar jardunaldian. Maiatzaren 12an Iruritan jokaturako saioan, Beti Gazte nagusitu zen gizonen 300 kiloko kategorian eta emakumezkoen 235 kilokoan, Berriozar 22 urtez behetikoa eta Basaburu kadete mailan.

Pisu astunenean bezala, ari-nenean ere txapelketako tiraldi guztiak irabazi zituzten Beti Gazteko gizonen eta emakumezkoen A taldeak. Mutilen

taldean, Gerardo Telletxea, Agoitz Altzugarai, Unai Gurrutxaga eta Karmelo Mitxelena laukotea suertatu zen txapeldun, Beñat Ordoki laguntzaile eta Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Emakumeetan, berriz, Beti Gazteko bi taldeen artean jokatu zuten eta Beti Gazte A nagusitu zen. Lesarrekin batera Berriozarrek osatu zuen podiuma eta Antsoain laugarren izan zen.

Emakumeen talde txapeldunean Amaia Leiza, Udane Arbelaiz, Udane Loidi eta



Beti Gazteko mutilak eta neskak, 4x4 txapelketan garaile. XAGU-LESAKA

Ainhua Ubiria aritu ziren tiran, Irantzu Goienetxe laguntzaile zutela. Txapeldunorde izan zen Beti Gazte B taldean Aitziber Goienetxe, Kristiñe

Txoperena, Arritxu Muxika eta Karmele Pikabea aritu ziren, Oihana Mindegia laguntzaile zutela. Bi taldeetan Joxe Angel Mitxelena aritu zen gidari.

IKUSKIZUNAK

SARA

Zazpiak bat

Ekainaren 1ean, Omordian,
19:00etan.

ARANTZA

Harritik Hazia

Eskolako patioan, ekainaren
2an, 20:00etan.

LESAKA

Rebeca akademiako ikasleen
dantza jaialdia

Ekainaren 16an.

IPUIN-KONTAKETA

ELIZONDO

Superlaguna ipuin-kontaketa

Fernando Anbustegiren eskutik.
Eskolan, ekainaren 9an,
bazkalondoan.

MAHAI-INGURUA

LEITZA

Artilea nola kudeatu

Mendialdea Mankomunitatearen
eskutik.
Udal Batzar Aretoan, ekainaren
5ean, 10:30ean.

AZOKAK

BERA

Baztan-Bidasoko ekoizleak

Ricardo Baroja eskolan,
ekainaren 10ean, 10:00etatik
13:00etara.

KIROLA

LEITZA

Euskal Herria Mendi Erronka

Bezperatik izanen dira ekitaldiak.
Ekainaren 2an, 08:00etan
hasita. Dorsalak 06:00etatik



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ETXALAR Gasna Feria

Eskulangileen erakusketa, gasna lehiaketa, trikitilariak... izanen dira.
Ekainaren 3an, igandean.

aurrera banatuko dituzte.

SARA

Eskubaloiturneo

Ekainaren 2an, 13:30ean hasita.

Mendi ibilaldia Axuriara

9 km-ko ibilaldia, 600 metroko
desnibela.
Ekainaren 8an, 09:00etan.

BTT ibilaldia

26 eta 35 kilometroko ibilaldia
aukeran. Izen-ematea 07:30ean.
Ekainaren 10ean, 08:30ean
plazatik abiatuta.

LESAKA

Mendi itzulia

Ekainaren 10ean.

ARANTZA

Mendi itzulia Mendaurrera

Solaslaguna egitasmoak
antolatuta, ikasturtea agurtzeko
hitzordua.
Ekainaren 17an.

KONTZERTUAK

URROZ

Malerreka Kantuz

Ekainaren 2an, plazatik hasita,
12:00etan.

ORONÓZ-MUGAIRI

Eskifaia abesbatzaren
kontzertua

Elizondoko abesbatzaren eskutik.
Ekainaren 2an, 20:00etan.

BERA

Abesbatzaren kalejira

Ekainaren 9an, Agerratik hasita,
karrikaz karrika, 17:30ean.

Udako kontzertua

Isidro Fagoaga Udal Musika
Eskolan, bertako ikasleen
eskutik, 18:00etan.

LEITZA

Kantu emanaldia

Torrean, ekainaren 3an,
22:30ean.

Organo eta tronpeta
kontzertua

Elizan, ekainaren 3an,
19:00etan.

LESAKA

Musika eskolako ikasleen
kontzertua

Harriondoan, ekainaren 6an,
18:00etan.

Lesakako soinuariak

Harriondoan, ekainaren 8an.

ELIZONDO

Baztango musika eskolako
akordeoi kontzertua

Mariano Izeta Errebote Plazan,
ekainaren 10an, 13:00etan.

Baztango Musika Eskolako
kontzertua

Zahar-etxean, ekainaren 12an,
17:30ean.

SARA

Lokarri abesbatzaren
kontzertua

Elizan, ekainaren 7an,
21:00etan.

Goraki abesbatzaren
kontzertua

Elizan, ekainaren 14an,
21:30ean.

BESTAK

ALMANDOZ

Herriko bestak

Maiatzaren 30etik ekainaren
3ra.

BERA

Aitzateko bestak

Ekainaren 15etik 17ra bitarte.

OSPAKIZUNAK

LESAKA

Beti-Gazte Elkarteen Eguna

Ekainaren 2an.

DONEZTEBE

Errekaren Eguna

Ekitaldiak bezperatik.
Ekainaren 2an.



UTZITAKO ARGAZKIA

LEITZA Euskal Herria Mendi Erronka

Leitzako plazan hasi eta bukatuko den 67 kilometroko itzulia.
Ekainaren 2an, larunbatean.

NARBARTE**Sagardo Eguna**

Ekainaren 2an.

BERA**XXIV. Dantzari Ttiki Eguna**

Ekainaren 2an. Gure Txokoak antolatua.

ETXALAR**Gasna eta Artisau Feria**

Ekainaren 2an eta 3an. Altxata elkarrekin antolatua.

LEITZA**Sagardo Eguna**

Ekainaren 9an.

Larreen Eguna

Ekainaren 16an.

Ehoziri Topaketa

Ekainaren 17an, 11:00etatik 14:00etara.

Baztango IV. Gazte Eguna

Gazte olinpiadak, bazkaria, kalejira, kontzertuak... Egun osoko egitarau anitza.
Ekainaren 16an.

LEHIAKETAK**LESAKA****Argazki Rallya**

Beti Gazte elkartearen eskutik.
Ekainaren 3an, 10:00etatik aitzinera. Izen-ematea: 10 euro, 16 urtetik beheitikoek doan.

Elias Garralda margo lehiaketa azkarra

Ekainaren 3an.

SARA**Eskolarteko bertso txapelketaren finala eta besta**

Ekainaren 9an, 11:00etan, trinketeen. 14:00etan bazkaria Lur Berri Gelan.


ERAKUSKETAK**ELIZONDO****Margo erakusketa**

Eugenio Llamosas margolariaren eskutik.
Arizkunenean, ekainaren 1etik 24ra.

Nire aukera**«Ditudan opor gutiak herrira itzultzeko baliatzen ditut»**

MIKEL OTEIZA KALIFORNIAN BIZI DEN ERRATZUARRA

«Musika, mendi bizikleta eta argazkilaritza» gustuko dituen erratzuarra da Mikel Oteiza. 2002an sorteria utzi eta «ingelesa ikasi bitartean bertze esperientzia bat bizitzeko asmoz» Kaliforniara joan zen. Herria utzi zueneko oroitzapena lausotua badu ere, «zailena familia uztea» izan zela erranen luke. Borondatez eta asmo jakinik gabe hartu zuen hegazkina, eta «konturatu gabe»



MIKEL ETA XANTI, AITA-SEMEAK

«ERRETIRATZEAN
UDAK BAZTANEN ETA
NEGUAK
KALIFORNIAN PASA
NAHI NITUZKE»

ia hamasei urte daramatza han. Txokoak ederki ezagutzeko astia izan du, eta ezagutu dituenetatik hango parajeez goatzera doazen mendizaleei, Yosimete eta Sequoia Park gomendatuko lizkieke, hondartza zaleei, berriz, Laguna eta Venice. Joshue Tree Parkeko ilunabarrak ere «ikaragarriak» direla nabarmendu nahi izan du, «ezagutu beharrekoak». Herria utziagatik, euskal

munduarekiko harremana ez du itzaltzen utzi. Asteburuan bizikletan ibili ondotik «Chinoko Euskal Etxean bazkari eder bat egitea bezalako planik ez dago». Areago, emazteak ere Euskal Herriko erroak ditu: «bi aitatxiak Iparraldekoak zituen eta bi amatxiak Kalifornian sortuak izanagatik, euskaldunak ziren». Hori horrela, «bere familiak, oro har, euskal kulturari; eta bereziki, euskal kantei irmo eutsi dio». Iturri horretatik edan du berak ere: «emazteak Noka euskal jatorriko taldean kantatzen du, Mikel Markezen azken diskan parte hartzen du eta aitarekin diska bat grabatzen ari da orain». Bizitzaren zati handi bat Kalifornian igaro du Oteizak baina orain artean «ditudan opor gutiak Euskal Herrira itzultzeko baliatzen ditut». Etorkizuna «denboraren erranetara» utziko du. Denbora pasa ahala behin-betiko itzultzea zailtzen dela jabetzen bada ere, «erretiroa hartzen duenean neguak Kalifornian eta udak Baztanen pasatzea» gustatuko litzaioke. Horrela, Kaliforniatik gehien gustatzen zaiona, «eguzkia», eta Baztanetik faltan botatzen duen «lasaitasuna» uztartuko lituzke. Bitartean «ea Los Angelesetik Iruñera bi orduz sartzeko hegazkin supersoniko bat jartzen duten!».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

LESAKA. Azkaine karrikan, 7. zk. pisua eta bajera salgai, 1go solairuan. 95m² ditu pisuak eta azpian duen bajeak 44m². ☎ 685 778757 (Miguel).

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Apartamentua errentan emateko. Irailetik ekainera, bi irakaslerentzako. Bi logela, bakoitza bere komunarekin. ☎ 948 637862 / 678 855056.

ALMUÑECAR hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko ekaineko 1. hamabortzaldian eta irailean. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎ 658 943702.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko lagun baten bila. ☎ 678 076665.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMAN



LESAKA. Haizea Kafetegia errentan emateko, Plaza Zaharrean. Kokaleku aproposa, 110m² eta zuzenean lanean hasteko prestatuta dagoen lokala da. ☎ 636 393159.

BERA. Jubilazioagatik, janari-denda bat traspasatzen da. ☎ 948 630452. (Deitu arratsalde, 18:00etatik 20:00etara).

LESAKA. Itturizubiko plazako 9. eta 10. zenbakian, ile-apaindegi bezala egokitua dagoen 70 m²ko lokala errentan emateko. ☎ 661 081273 / 948 637703.



IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ELIZONDO. Gorramendi kalean (Merkatuzelai urbanizazioa), eraikitze 530 m²ko lursaila salgai. ☎ 600 386897.

LANA

ESKAINITZAK

BERA. Churrut Hotelean (Lenkonea jatetxea) egun osoan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 948 625540 / 699 431871.

BERA. Churrut Hotelean lan egiteko hoteleko harreragilea behar dute. ☎ 948 625540, 699 431871.

AMAIUR. Amaiurko erroten langilea behar dute ostalaritzan lan egiteko, asteburuetan eta udan. ☎ 619 955709 / 660 731781.

IGANTZI. Igerilekuko ostatuan sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 639 321119.

URDAZUBI. Irigoienea hotelean, udako asteburuetan (ortziraletik igandera, goizez) lan egiteko pertsona behar da. ☎ 948 599267.

BERA. Jatetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 607 827309.

ETXALAR. Herriko Ostatuan langile bat behar dute. ☎ 948 635465 / 689 042621.

BERA. Asteburuetan eta udan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 948 630392.

ESKARIAK

Ostalaritzan, adinekoak zaintzen edota garbiketan aritzeko, mutila lan bila. ☎ 631 544481.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 49 €

Zerri gizona 1,156 €

Zerramak 0,535€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (maiatzaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

Adinekoak zaintzeko interna edo orduka, haurrak zaintzeko edota garbiketa lanetarako emakumezkoa lan bila. ☎ 612 533757.

Emakumezkoa adinekoak zaintzeko lan bila. Interna bezala adinekoak zaintzen esperientziaduna. Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta sukaldaritzako hainbat ikastaro eginak. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 619 386414 / 698 630415.

Lanean esperientzia duen neska lan bila, adinekoak interna bezala edo orduka zaintzeko, haurrak zaintzeko edota garbiketa lanetarako (portalak, etxeak...). ☎ 664 149530.

Gizonezkoa interno moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎ 653 654204.

Gizonezkoa margotzen aritzeko, garbiketan aritzeko edo adinekoak zaintzeko lan bila. Esperientzia lan eremu horietan guztietan. ☎ 631 837171.

Gizonezkoa adinekoak zaintzeko lan bila, interno moduan edo orduka. ☎ 631 202480.

29 urteko neska lan bila. Fabrikaren batean lan eginen luke, haurrak zaintzen, dendaren batean... ☎ 687 222320.

Emakumea adineko pertsonak interna edo orduka zaintzeko, haurrak zaintzeko edota garbitasuna aritzeko lan bila. ☎ 644 877078.

Gizona lan bila: adinekoak zaintzen interno bezala edo orduka, garbiketan, nekazaritzan edota abeltzaintza lanetan ganaduarekin lan egiteko prest. ☎ 622 015725.

Neska adinekoak zaindu edota haurrak zaintzeko lan bila. ☎ 682 693911.

Emakumea lan bila haurren zainketarako, adinduen zainketarako interna moduan edo orduka eta garbiketa lanetarako. ☎ 632 726799.

Emakumea interna moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Esperientzia adinekoak zaintzen. ☎ 611 310225.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BERA. Neska batek, uda honetan klase partikularrak emanen lituzke: ingelesarekin nahiz bertze arlo batzuekin laguntzeko prest dago. ☎ 678 968495.

DENETARIK**SALEROSKETAK**

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

Traktore ertainendako **belar bola enzitadora** salgai. Egoera onean, gutti erabilia. ☎ 606 586603.

Errepideko bizikleta berria salgai, Alsanía markakoa. 80 euro. ☎ 606 552350.

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

Estreintu gabea

KM 0

12.950€

KANGOO PROFESIONAL DCI 90 CV
Apark. radarra, auto gaineko barrak, aire girotua

Estreintu gabea

KM 0

18.950€

KADJAR TECH ROAD 1.5 DCI 110 CV
Klimatiz., apark. radarra, abiadura erreg./mug.
Biak sustapen finantzieroei lotuak

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

2000€

2000€

3.500€

Kanttonberri. 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak
ERRAN.EUS-en ere argitaratzen dira
hilabete batez: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

ARANTZAKO UDALA**Hiri-jarduketarako Plan Berezia 5. poligonoko 792. lurzatian. HASIERAKO ONESPENA**

Herritarren parte-hartze prozesuaren ondoren, Arantzako Udalak, 2018ko maiatzaren 7ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batez onetsi du Hiri-jarduketarako Plan Berezia, Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 792. lurzatian (Ana Isabel Telletxea Iraola andrea eta Javier Gago Balda jaunak sustatua), eta xedatu da jendaurrean edukitzea. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoren, interesdunek hirigintza espedienteak kontsultatu ahaliko dute eta, kasu bada, bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu. Argitara ematen da, uztailaren 26ko 1/2017 Legegin-tzako Foru Dekretuaren 72.1.a) artikuluan ezarritako ondorioak izan ditzan.

Arantzán, 2018ko maiatzaren 14an | Alkatea, Mentxu Peña Lizarazu

KULTURKARIREN
ESKAINITZA BEREZIA

KARTELAK

A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK

+

WHATSAPP EZ BIDALTZEKO
IRUDI DIGITALA OPARI

Info +: 948 63 54 58

ZUK

ttipi-ttapa

Zuk TTAPI-TTAPARI 50€ ematen badizkiozu

...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapa Fundazioak?

- TTAPI-TTAPA aldirakaria argitaratu eta zure etxera eramán
- ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez eguneroko informazioa zabaldu
- Euskara eta euskal kultura sustatu

eta guztia...
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

LAGUNDU

mecna

ZURI

MECNAk zuri 40€ bueltatuko dizkizu

40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitorpenean

ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT

Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitorpenean lehen 150€tan, eta %40a kopuru haundiagoetan.

AURREZTU

Bagoaz,
baguzi,
bagazi
ttipi-ttapa
haziz!

ttipi-ttapa

Informazioa lortu nahi baduzue deitu
948 635 458 telefono zenbakira

edo gurekin harremanetan jarri
bagoaz@ttipi.eus

posta elektronikoan



HERIOTZAK

- **Jose Angel Zunda Beratarretxea,**
Sunbillakoa, maiatzaren 12an, 89 urte zituela.
- **Andres Darrayet Etxeberria,**
Elizondokoa, maiatzaren 13an, 76 urte zituela.
- **Jean Jacques Abadie,**
Sarakoa, apirilaren 29an, 99 urte zituela.
- **Ramon Astiz Arraras,**
Leitzakoa, maiatzaren 14an, 97 urte zituela.
- **Jose Fausto Ostolaza Elizondo,**
Doneztebekoa, maiatzaren 17an, 64 urte zituela.
- **Fermín Dozagarat Ubiria,**
Berakoa, maiatzaren 17an, 73 urte zituela.
- **Agustin Otondo Dufurrena,**
Erratzukoa, maiatzaren 19an, 84 urte zituela.
- **Juan Jose Durruty Meaka,**
Erratzukoa, maiatzaren 19an, 92 urte zituela.

**ESKELAK JARTZEKO edo
OROIGARRIAK EGITEKO:**
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena
Nafarroa garaiko mendialdean

URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
II. urteurrena

Gure gau ilunak
argituko dituen izarra,
buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada.
Gure bihotzean beti
altxatuko dugun
Aitor maitea izanen zara.



ZURE FAMILIA

Maldaerreka IRACHE tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN

Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**

Ehorzketa Zerbitzuak

MALERREKA:
DONEZTEBEN, maiatzak 21etik aitzinera
Aparan industrialdean

BERAn, San Jose Beilatokian
Eta laster, ELIZONDOn

Baita BERTIZARANA | ZUGARRAMURDI | URDAZUBIn ere
ESKUALDEAN ETXEKO ZERBITZUA

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | **info@funerariabaztanbidasoa.com**



Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



Kinto besta. Azken aste eta hilabeteotan nonahi egiten ari dira kinto bestak eta argazkian ageri direnak ere berriki egin dute urteroko hitzordua. Joan den maiatzaren 19an, 1962 eta 1963 urteetako Berako kintoak Zalain jatetxean elkartu ziren. Giro ederrean bazkaldu ondotik, dantzan ere aritu ziren.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Elea Santesteban Iriarte**, Sarakoa, apirilaren 29an.
- **Ibai Etcheverry Hariscain**, Sarakoa, maiatzaren 3an.
- **Chiara Juanikotena**, Sarakoa, maiatzaren 7an.
- **Julia Juanikotena**, Sarakoa, maiatzaren 7an.
- **Maddi Mutuberria Zelaieta**, Lesakakoa, maiatzaren 9an.
- **Ekai Retegi Eskudero**, Eratsungoa, maiatzaren 18an.
- **Luken Ariztegi Zabaleta**, Doneztebekoa, maiatzaren 6an.

EZKONTZAK

- **Borja Izaskun Atxutegi** eta **Cristina Burgos Villanueva**, Donostiakoa eta Iruñekoa, apirilaren 21ean Lesakan.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

URTEBETETZEAK



Oier Iparragirre Alberdi aranztarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak bihurritxo! Muxu pila familia osoaren partetik.



Ekainaren 12an 3 urte beteko dituen **Jare Iparragirre** printzesari zorionik handiena opa diogu. Muxu bat Bera eta Sunbillako familien partetik.



Oizko **Bittor Zelaieta Ariztegi** 50 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak attona!! Muxuak Hegoi, Unax eta etxekoan partetik. Prestatu pastelak!




Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren eta bereziki Iraia ahizparen partetik!



Zubietako **Ekaitz Loiarde Otxandorenak** 10 urte beteko ditu ekainaren 6an. Aunitz urtez bihurri! Segi bazterrak joare kolpez alaitzen.



Beñat Goñi Errandoneak 5 urte beteko ditu ekainaren 3an. Zorionak eta muxu bat Arantzako amabxi, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



Garaile Zelaieta Fernandez gure super izebak 24 urte bete ditu maiatzaren 28an! Zorionak izeba! Hegoi eta Unaxen partetik, eta etxekoan partetik ere bai!! Muxu asko polita!



Erratzuko **Narrea Vicendok** maiatzaren 29an 13 urte bete ditu. Zorionak familiaren, lehengusuen eta bereziki Enaitz anaiaren partetik.



Lekarozko **Oinatz Sarratea Arretxeak** maiatzaren 27an 2 urte bete ditu. Zorionak bihurri! Bi muxu pottolo familia eta bereziki Julen anaiaren partetik.



Garazi Obeso Sein gure etxeko sorginak urte bat beteko du ekainaren 2an. Aunitz urtez etxekoan partetik eta bereziki Amaneren partetik.

PLAZAN BAZAN




KANPALEKUA



Hamar txatal horietatik borts irudi nagusiari dagozkio, baina bertze bortsak ez, hala diruditen arren. Zeintzuk ote dira txatal engainagarriak eta zeintzuk benetakoak?

Egilea: Garbine Ubieda (Aiurri)



BEGIRA, BEGIRA!

KANPALEKUAN, SEGUNDO BAT GEROAGO

Segundo eskas batean gauza aunitz gertatu dira kanpalekuko gune honetan. Bila itzazu bi irudien arteko 17 aldeak.



SUDOKUA

Bete itzazu lauki zuriak
HIRU hitza osatzen duten hizkiez
(H, I, R eta U). Gogoratu hizki
bakoitzak behin agertu behar duela
zutabe, lerro eta area bakoitzeko.


U		H	
	H	i	
		R	
i		U	

3



MARRAZTU

Zer ote daramate inurri hauek?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



BIOTERRA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina FICOBA Irun



energia berriztagarriak



osasuna



habitat osasuntsua



ideia berdeak



textil ekologikoa



ekoturismoa



nekazaritza ekologikoa



zentzudun kontsumoa



elikadura osasuntsua



kosmetika ekologikoa



terapia naturalak



BIOTERRA



BIOTERRA
2018

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina FICOBA, Irun.



Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu



#Bioterra2018



Ficobara, zalogo irenean!
euskotren
(Irun-Ficoba geltokia)

bioterra.ficoba.org